

# Gidoiak sarean Guiones on-line

Guionistas Vascos  
Euskal Gidoigileak



## *Aupa Etxebeste!*

Asier Altuna

Pablo Bueno

Telmo Esnal

**Argitalpen konparatiboa**

**Edición comparativa**

**Ikuskapena / revisión:**

**Joanes Urkixo**

**Jatorrizko izenburua / Título original:**  
**Aupa Etxebeste!**

**Gidoi Zinematografikoa / Guión cinematográfico:**  
© **Asier Altuna, Pablo Bueno, Telmo Esnal**

**Argitalpen ikuskatua / Edición supervisada:**  
**Joanes Urkixo**

**Argitalpen konparatibo berezia / Edición especial comparativa:**  
**EHGEP/APGEH**

Euskal Herriko Gidoigileen Elkarte Profesionala  
Asociación Profesional de Guionistas de Euskal Herria  
Bertendona 3 bis - 4  
48008 Bilbo - T. 94 416 67 45  
[www.gidoi.com](http://www.gidoi.com)

#### MUGAK ETA BALDINTZAK

Euskal Herriko Gidoigileen Elkarte profesionalak hemen erakutsitako gidoiak indarrean dagoen Jabetza Intelektualaren Legeak babestuta daudela ohartarazten du.

Debekatuta geratzen da gidoi hauen edozein erabilera, dela komertziala edo ez, edozein hizkuntzatara itzultzea edota banatzea, komunikazio publikoa, publikoaren eskura jartzea, edozein motako eraldaketa, egokitzapena, erabilera edota erreprodukzio osoa eta partziala, edozein baliabide edo prozeduraren bidez, iturria eta gidoiaren Egilea aipatzen badira ere, horretarako Egilearen alde zuzeneko baimen zehatza eta idatzizkoa eduki behar izango baita.

#### TÉRMINOS Y CONDICIONES

La Asociación Profesional de Guionistas de Euskal Herria advierte que los guiones aquí expuestos están protegidos por la vigente Ley de Propiedad Intelectual.

Quedan prohibidos cualquier uso comercial o no, traducción a cualquier idioma y/o distribución, comunicación pública, puesta a disposición al público, transformación de cualquier tipo, adaptación, utilización y/o reproducción total o parcial de estos guiones, por cualquier medio o procedimiento, incluso citando la fuente o el Autor de los guiones, pues para ello se deberá contar con la autorización previa, expresa y por escrito del Autor.

LAGUNTZAILEAK / COLABORADORES

*Guionistas Vascos*  
*Euskal Gidoigileak*   
URTE-ANOS



EUZKO LEGEBILTZARRA  
FORNTERIA VASCOA  
KULTURA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA

fundación  fundazioa



## TITULOAK.

Kotxeak garbitzeko makina baten prozesu guztia, kotxe barrutik, ikusten dugu. Aurreko kristala ur eta xaboiarekin betetzen da, ondoren errodiola bere lana egiten hasi da.

Tituluak intsertatuko ditugu.

### 1. HERRIKO PLAZA. KANPOA. EGUNA.

Elizako kanpandorra ikusten dugu. Plano desberdinetan herri bateko alde zaharreko teilatuak ikusi ondoren, plazara inguratzen gara. Bertan mugimendu asko sumatzen da, jendea enkarguak egiten ari da.

*(Irudiekin batera martxa alai bat entzungo dugu. Musika honek kontserbatorioko sekuentziaraino jarraituko du.)*

Kotxe familiar bat herriko plazara iritsi eta portale baten aurrean geratzen da. Han Emakume bat, MARGARI, bi umerekin dago zain, lurrean berriz maleta eta poltsa ugari daude. Gizona kotxetik atera eta maletak kotxean kargatzen hasten da. Bi atso familiarengana hurbiltzen dira.

ATSOA 1  
Zer, ba al zoazte?

MARGARI  
Bai, maletak kargatu eta ospa.

ATSOA 1  
Zer, Saloura, ezta?

MARGARI  
Bai, urtero bezala.

ATSOA 2  
Benga, Kontxi, goazen.

ATSOA 1  
Bai, presaka ibiliko zarete, eta! Bueno, jaietan ikusiko gara, ondo pasa eh!

MARGARI  
Bai, berdin. Ondo zaindu herria Eh!

Bi atsoak buelta eman eta isilago hitz egiten hasten dira. Beraiekin jarraitzen dugu aurrera.

ATSOA 2  
Zer esan din?

ATSOA 1  
*(Haserre.)* Denek esaten dutena, ondo zaintzeko herria.

ATSOA 2

Niri, egia esaten badinat, ez zidaten batere inbidiarik ematen. Abuztuan ondoen herrian egoten den, lasai lasai.

ATSOA 1

Ba niri amorrua ematen zidan. Hemen geratzen geranok, gutxiago al gera edo? Ba al dakin zer esan zidan nere iloba Juan Kruxek? Jendeak kredituak eskatzen dituela oporretara joateko.

ATSOA 2

Hiri zer axola din jendeak zer egiten duen bere diruarekin?

ATSOA 1

Beraiena balitz bale, baina hori den arazoa. Ni, dirurik ez badet, ez nian oporretara.<sup>1</sup>

## 2. HERRIKO ZUBIA. KANPOA. EGUNA.

Bi agure plazako banku batean jarrita daude. Bi zaharretako batek segituko dio atsoen elkarrizketari.

ZAHARRA 2

Urte guztia lan egin ondoren zeozeren beharra izaten dek.

ZAHARRA 1

Beharra? Jendez jositako hondartza ziztrin batean egoteko beharra? Hemen jendea oporretan ondo ikusia dagoelako joaten dek, besterik ez. Esango didak zer pintatzen duten Etxebestetarrek Marbellan.

ZAHARRA 2

Hortan arrazoi dek. Luzianogatik balitz, hementxe geldituko hituan. Horri gastatzea ez zaiok batere gustatzen.

ZAHARRA 1

Luzianori ez, baina besteei? Horiek ez dituk ezertaz pribatzen.

ZAHARRA 2

Patrizio hau, golfo xamarra atera dek. Lan egitea ez zaiok asko gustatzen.

ZAHARRA 1

Lana? Orain, berriz, alkaterako aurkeztuko dek eta.

ZAHARRA 2

Herriarekin fabrikarekin bezela egiten badu, ederra zeukeagu. Kasik hobe diagu ateratzen ez badu...<sup>2</sup>

---

<sup>1</sup> Hasiera hau guztia ez dago azken muntaian. Horren orde, udal banda ikusten dugu entseguan, beranduago Kontserbategia izenez deskribatuta dagoen lokale batean, non jaietarako buruhandiak ere ikusten ditugun.

<sup>2</sup> Sekuentzia hau ez da agertzen. Horren orde, beranduago idatzirik eta tabernan gertatzen den bat daukagu hemen (8. sekuentzia), non Patriziok azpeitiar batek zezen pikadorearena egin zueneko pasadizoa kontatzen duen. Segidan banda ikusten dugu berrito, entseguan. Kredituek irauan egiten dute oraindik.

### 3. TABERNA. BARRUA. EGUNA.

Tabernan tragoxka bat hartzen ari den gizon koadrila batek zaharren konbertsazioa jarraitzen du.

LUIS  
Atera egingo dik.

JULIAN  
Ez dik aterako.

LUIS  
Etxebeste jende guztiak ezagutzen dik! Hik badakik ze "popularra" den?

KAMAREROA  
Hi, oraindik hilabete geratzen dek kanpaina hasteko eh! hartzazue lasai.

JULIAN  
Atera egingo dik. Gainera independente moduan aurkeztuko dek, eta hemen jendea nazka-nazka eginda zegok partiduekin!

### 4. PELUKERIA. KANPOA. EGUNA.<sup>3</sup>

Pelukeria batean gaude. Bertan PELUKERAK Andea orrazten ari da, tabernako elkarrizketa jarraitzen dute.

PELUKERA  
Hortan arrazoi den!... Neronek ere azken hauteskundeetan ez nionan inori botorik eman.

ANDREA  
Diotenez, Patrizio den kandidatoen artean nagusi.

PELUKERA  
(*Ironikoki.*) Orduan, Maria Luisa "alkatesa" izango dinagu!

ANDREA  
Horixe besterik ez zinan falta Maria Luisak...<sup>4</sup>

---

<sup>3</sup> Kredituek iraun egiten dute.

<sup>4</sup> Azken muntaian, andreak Maria Luisa datorrela ikusi eta pelukerari ohartu egiten dio. Maria Luisak pelukera agurtzen du sartzean.

ANDREAK, zerbait ikusten du eta kolpetxo bat ematen dio ukalondoarekin PELUKERARI. PELUKERAK ateruntz begiratu eta aurpegia aldatzen zaio. MARIA LUISA pelukeriara sartzen da.

MARIA LUISA 40 bat urtetako emakumea da. Errubia, dotore jantzia eta oso ondo orraztua.

PELUKERA eta ANDREAK, itxura egiten, MARIA LUISA salututzen dute.<sup>5</sup>

PELUKERA  
Egunon Maria Luisa. Zer solarium-era?

MARIA LUISA  
Ez, presaka nabilen, ez zeukanat denborarik. Emaidan eguzkirik gabe moreno jartzeko krema horietako bat.

PELUKERA  
Tira, Maria Luisa, zuk ez dezu horren beharrik...

MARIA LUISA  
Ez den neretzat, Patrizioentzat den. Hanka txuri horiekin lotsa ematen zion hondartzara jesteria eta...

## **5. KONTSERBATORIOA. BARRUA. EGUNA.**

Hasieratik lagundu digun musikaren jatorria ikusten dugu: Herriko bandaren entsegua.

ZUZENDARIA bere batuta eskuan duela bandaren soinuarekin disfrutatzen ari da. Klarineta jotzen dutenen artean MAITE ikusten dugu, zeharka begiratzen du. Bestaldean IÑAKI ikusten dugu bere bonbardinoarekin.

IÑAKI 20 bat urtetako gaztea da, ondo jantzia, baita orraztua ere.

Kanta amaitzen da.

ZUZENDARIA  
Bueno, azken entsaioa izateko nahiko ondo atera da. Txupinazo egunean ikusiko gera. Ondo pasa oporrak... eta ez ahaztu pixkat entsaiatzea.

Bandako partaide guztiak euren instrumentuak maletatan gordetzen ari dira.

## **6. KONTSERBATORIOA. KANPOA. EGUNA.**

---

<sup>5</sup> Andrea desagertu egiten da. Amaieran, pelukerak krema bat gomendatu eta Maria Luisak onartu egiten du.

Kanpoan IÑAKI neskez despeditzen ikusten dugu, tartean MAITE.

IÑAKI bere lagunengana zuzentzen da. Eskailera batzuetan jarrita daude. Potzoloena (XOLOMO) ahoarekin bonbardinoaren soinua imitatzen ari da. Ibiltzen hasten dira.

IÑAKI

*(Mozten, serio.)* Hi, XOLOMO, gaur ere txiste bera?

XOLOMO

Eske... bonbardino horrekin ibili egin behar dek, egun guztia atzera ta aurrera!

BALIN

Zer uste dek bonbardinoagatik dagoela bandan ala? Fijatu al haiz, orain ere, zenbat neskarekin irten den? <sup>6</sup>

PIKITA

Bonbardinoa? Honi "klarinetea" gustatzen zaiok.

IÑAKI

Hi. Pa emaiak!

PIKITA

Orain ere berarekin atera haiz eta.

IÑAKI

Zein? Maite? Nere auzokoa dek eta.

BALIN

Ta?

IÑAKI

Ba... horixe...

Eliza ondoko ate batetik sartzen dira.

## **7. KANPANDORREA. KANPOA. EGUNA.**

IÑAKIk peta bat pizten du. Planoa zabaldu eta kanpandorrean gaudela ikusten dugu.

IÑAKI

Hi Balin, azkenean, joan behar al dek bakaziotan?

BALIN

---

<sup>6</sup> Ez da aipatzen zenbat neskarekin irten den Iñaki, baizik eta zenbat "pibita" irten diren entsegu lokaletik.

Keba. Herrian geratuko nauk, bakar bakarrik etxean. Kristonak egin behar dizkiagu. Zergaitik ez haiz geratzen? Hi bakarrik faltako haiz.<sup>7</sup>

IÑAKI

Hemen geratu? Zer egin behar dek hemen? Gosea pasa, besterik ez.

BALIN

Keba, jatera izeban etxera nijoak.

Denak barre egiten dute. XOLOMOk beste peta bat egiten du.

PIKITA

Izebaren etxera? Hau dek hau kafria. Gurasoekin joan nahi ez eta izebarekin geratu!

BALIN

Eh! Bazkaltzera besterik ez.

IÑAKI

Putaidearik ez daukak, Balin. Listoago izan beharra zegok: Gurasoei kaso pixkat egin eta gero nahi duana egin.

BALIN

Gurasoekin? Ezta pentsatu ere.

IÑAKI

Begira Balin. Nik oso argi zeukeat. Nik zer nahi det? Ondo bizi. Ondo bizitzeko zer egin behar det? Gurasoak gustora eduki. Marbellara joan, hilabete errege moduan pasa eta denak kontentu!

BALIN

Ba ez! Nik gurasoekin joan nahi ez badet ez noak eta kitto. Nik neure bizitza egin nahi diat, gustatzen bazaie ondo eta bestela izarrai.

IÑAKI

Ez nauk harritzen egun guztia bronkaka ibiltzeaz. Kafre bat haiz Balin!

BALIN

Bai, hi bezela: Guapoa, sinpatikoa, bandan bonbardinoa jotzen eta enpresariales ikasten. Hori bai, badituk hiru urte karrera utzi zuela... baina oraindik gurasoei kontatzera ez dek ausartzen.

---

<sup>7</sup> Bi elkarrizketa lerrook aurreko sekuentziaren amaieran entzuten dira. Hurrengoak ezabatuta daude harik eta Iñakik esan: "Putaidearik ez daukak, Balin".



IÑAKI moskeatu egiten da eta Balini lepotik heltzen dio. Beste lagunak biak separaten.<sup>8</sup>

IÑAKI

Ez ezak hori berriz aitatu, bestela kriston hostiakoa emango diat.

BALIN

Utzidak bakean... Ez zioat inori ezer esango eta!

Denak isilik geratzen dira. Kanpaiak jotzen du. XOLOMO harrapatzen du gertu eta salto bat ematen du. IÑAKI eta PIKITA barrez lehertzen dira. BALINEk haserre jarraitzen du.<sup>9</sup>

## 8. TABERNA. BARRUA. EGUNA.<sup>10</sup>

Herriko tabernan gizon koadrila ardoak hartzen ari da. Bertan PATRIZIO ikus dezakegu. PATRIZIO 45 urteko gizona da.

PATRIZIO

Enteratu al zarete zer gertatu zen larunbatean Azpeitian?

LUIS

Azpeitian? Zer?

PATRIZIO

Semana taurinako lehen korridan, pikadorea lesionatu eta bertako bati tokatu zitzaioan pikadore lanetan hastea... Nola da azpeitiko potzolo hau?...

JULIAN

Patxi?

PATRIZIOren inguruan korro ederra formatu da.

PATRIZIO

Bai, bera. Pikadore trajea jantzi eta han ziak zaldiaren gainean, Patxi. Pikatzen zuen lehenengo aldia, baina batere beldurrik gabe.

PATRIZIO oso gustura ari da kontatzen. Kamareroak badaki gezurretan ari dela.

PATRIZIOk paper guztiak antzezten ditu.

---

<sup>8</sup> Azken bertsioan ez dute zirkinik egiten.

<sup>9</sup> Kanpaien jotzearen ostean, panoramika labur bat ikusten da herriko teilatuen gainean, non azken kredituak agertzen diren.

<sup>10</sup> Esanda geratzen den bezala, sekuentzia hau arinago agertzen da.

PATRIZIO

Herrikoek ezagutu egiten ditek: aiba la hostia Patxi dek eta...Aupa Patxi! Patxi, berriz, lotsa-lotsa eginda. (*Lotsatuarena egiten du.*) Han zetorrek zezena bere gainera... (*Zezenari pika sartuko balio bezala egiten du.*) Xast!... Ondo sartuta gainera...Herrikoak emozionatu eta denak batera hasten dituk: (*Animatzen hasten da.*) Patxi, Patxi, Patxi...

PATRIZIOk bere ingurukoak begiratzen ditu.

PATRIZIO

Joder, lagundu egidazue pixkat. Benga Patxi, Patxi, Patxi!

PATRIZIOk pikadorearena egiten jarraitzen du, indarra egingo balu bezala.

LAGUNAK

Patxi, Patxi, Patxi...

Bi Municipal taberna aurretik pasatzen dira eta leihotik begiratzen dute. Bertan geratzen dira.<sup>11</sup>

PATRIZIOk indar handia egiten, zezena jasoko balu bezala egiten du. Lagun guztiak barrezka hasten dira.

KAMAREROAK erremediorik ez duela adieraziko du aurpegiarekin. XIMON txaloka hasiko da. PATRIZIO gorputza mugitzen hasten da.

PATRIZIO

Ai, ai, ai...

Denak PATRIZIORI begira daude kezkatuak, PATRIZIOk poltsikotik mobila ateratzen du.

PATRIZIO

Ez nauk bibradore puta honekin sekula ohituko.

Denak barre egiten dute.

Kanpoan MUNICIPALAK farrez lehertzen alde egiten dute.

PATRIZIO

Bai? Honbre Juan Kruz!

PATRIZIO aldendu egiten da taldetik. Bat-batean JULIAN eta LUIS pagatu nahian ikusten ditugu.

---

<sup>11</sup> Municipalak ez dira sekuentzia honetan agertzen.

LUIS  
Kobraidak.

LUISek hogei euroakoa barra gainean uzten du.

JULIAN  
Mesedez Luis! Niri tokatzen zaidak. Kobraidak niri.

LUIS  
Berandu iritsi haiz. Hurrengoak pagatuko dek. (*Kamareroari.*)  
Ez kasorik egin eta kobra ezak hemendik.

LUISek JULIANi kolkotik sartzen dio dirua. KAMAREROA erne dago, disfrutatzen.

JULIAN  
Neronek ordainduko diat.

LUIS  
Gordetzeko diru hori, hostia.

Halako batean KAMAREROAk eztabaida etengo du.

KAMAREROA  
Barkatu, baina, zuek zergatik ari zerate borrokan:  
pagatzeatik edo ez pagatzeatik?

JULIAN eta LUIS geldirik geratzen dira.

LUIS  
Hi, Xolomo. Pagatzeagatik, noski.

KAMAREROA  
Ba pagatuta zegok. Etxebestek egin dik.

Denak PATRIZIORi begiratzen diote.

PATRIZIO  
(*Telefonoz.*) Bale Juan Kruz, oraintxe niak.

PATRIZIOk mobila itzali eta lagunak agurtzen ditu.

JULIAN  
Hi, beste bat hartuko diagu.

PATRIZIO  
Neri ez atera, joan egin behar diat.

JULIAN  
Bai, nik ere joan beharra diat.

PATRIZIOk irribarretxo botata eta alde egiten du.

## 9. BANKOA. BARRUA. EGUNA.

JUAN KRUZek, oso serio, paper batzuk pasatzen dizkio Patrizeri. PATRIZIO eseri egiten da.<sup>12</sup>

PATRIZIO  
Zer da hau?

JUAN KRUZ  
Oraintxe iritsi dek Epaitegitik.

PATRIZIO jaiki egiten da.<sup>13</sup>

PATRIZIO  
Juan Kruz, Sei kilo nizkian kontu horretan eh! Sei kilo!

JUAN KRUZ  
Hemen inork ez zian zor honen berririk. Nolatan ez diguk ezer esan? Gauza hauek denborakin jakin ezker...

PATRIZIOk mobila ateratzen du. Zenbakia begiratu eta erantzun egiten du.

PATRIZIO  
Barkatu JuanKruz! Bai?... Kaixo Maria Luisa... Zer?... Bai... Ez, ez kezkatu... Bale, lasai, nere kontu... Bai... Gero arte.

PATRIZIOk mobila sakelan gordetzen du.

PATRIZIO  
Maria Luisa huan, ez zioke Visa-k funtzionatzen, berriro martxan ipini behar diok.

JUAN KRUZ  
Sentitzen diat Patrizeri, baina...

PATRIZIO  
Ba, beste kreditu bat egidak...

JUAN KRUZ  
Ezin diat. Goikoek enbargoaren berri ditek, ezin diat ezer egin, ez zegok nere esku.<sup>14</sup>

---

<sup>12</sup> Jadanik eserita agertzen da, kezka aurpegian irakurtzen ari dela.

<sup>13</sup> Eserita jarraitzen du telefono deia erantzun arte.

<sup>14</sup> Lerro hau osorik "Ezin diat" labur batera murriztuta dago.

JUAN KRUZek burua mugituz ezetz adierazten dio. PATRIZIO pixka bat desesperatzen da.

PATRIZIO

Juan Kruz, banku honegatik egin degun guztiarekin, zerbait egitea posible izango dek, ezta?

JUAN KRUZ

Keba Patrizio. Gainera enbargoa banku guztietako ordenadoretan zegok... inon ez diate krediturik emango... (*Xuabe-xuabe.*) Momenturako zertxobait behar badek neronek utziko diat.

PATRIZIO

(*Buruarekin ezetz esanaz.*) Mesedez Juan Kruz. Lehenengo tailerra eta orain hau. Herrian jakiten bada....

JUAN KRUZ<sup>15</sup>

Hori informazio konfidentziala dek. Ezin dek hemendik atera. Zergatik ez dezue tailerra saltzen?

PATRIZIO

(*Egoera lasaitu nahian.*) Hori aspaldi egin behar genian. Bueno Juan Kruz, lasai,oporretako bueltan konponduko diagu!

PATRIZIO bulegotik kezkatua ateratzen da, larri dago. Banketxe guztia gurutzatzen du.<sup>16</sup>

## 10. KALE NAGUSIA. KANPOA.EGUNA.

PATRIZIO bankutik kezkatua ateratzen da, larri dago. Gizon batek agurtzen du. Patriziok irribarre faltsu bat eskaintzen dio gizonari. PATRIZIOk kalean gora jarraitzen du, berriz ere serio.<sup>17</sup>

Harategi aurrean PATRIZIOk Maria Luisa ikusten du Rosarekin hitz egiten. PATRIZIO eurengana inguratzen da, irribarre faltsua eginez.

ROSA

Honbre, hemen zetorren gure alkatea!

MARIA LUISA

Oraindik ez, asko falta den horretarako.

ROSA

---

<sup>15</sup> Lerro hau esatearekin batera, Juan Kruz zutik jarri eta Patriziorengana hurbilduko da.

<sup>16</sup> Honen ordezt, Juan Kruzi besoa jo eta koadrotik irteten da, azken hau kezka eraginda utziz.

<sup>17</sup> Patriziok erantzun egiten dio, kezka ezkutatu ezinik. Sekuentzia bertan amaitzen da.

Ba gure botoa seguru zeukan. Ez da hala Julian?

JULIANek baiezkoa adierazten du harategi barrutik gestu diskretu batekin.

MARIA LUISA  
Bueno Rosa, esan deguna. Hik deitu eta egingo dinagu zeozer.

Abilidade handiaz PATRIZIOk MARIA LUISAri eskua sorbaldatik pasa eta kalean gora eramaten du.

MARIA LUISA  
Bueno, egongo gaitun!

DENAK  
Agur!

PATRIZIO eta MARIA LUISA dagoeneko bakarrik geratu dira.

MARIA LUISA  
Ze lotsa pasatu dedan pelukerian. Konpondu al dezu Visarena?

PATRIZIO  
Ez.

MARIA LUISA  
Patrizio, Visa gabe ezin gera inora joan!

Bat-batean bi emakume pasatu dira beraien aldamenetik. PATRIZIO eta MARIA LUISA irribarretsu agurtzen dituzte.

EMAKUMEAK  
Ondo pasa Marbella aldean!

MARIA LUISA  
Bai, Eskerrik asko, Agur!

Kalean gora jarraitzen dute.

MARIA LUISA  
Patrizio! Konpondu ezazu VISArena oraintxe bertan! VISA gabe ezin gera etxetik irten!

Beste bikote bat pasa da. NARBAIZA eta bere EMAZTEA. Berriz ere agurra. Biek ezer pasako ez balitz bezala.

NARBAIZA ANDREA  
Kaixo pareja! Ez al zineten gaur irtetekoak?

MARIA LUISA  
Bai, gero, Patriziok nahiago du gaez gidatu. Eta zuek?

NARBAIZA ANDREA  
Gu datorren astean joango gara.

MARIA LUISA  
Nora ba?

EMAZTEAk ez daki zer esan, NARBAIZAri begiratzen dio.

NARBAIZA  
(*Mozten, gezurretan.*) Suitzara! Beno bidaia ona izan eh! Agur.

MARIA LUISA  
Bai, eskerrik asko, agur.

Bikotea aldentzen da.

PATRIZIO  
Aizu Maria Luisa. Herri honetan egongo al da inor gaur Marbellara goazela ez dakienik?

MARIA LUISA  
Patrizio utzidazu diru pixkat. Oraindik enkargu piloa daukat egiteko.

PATRIZIOk kartera atera eta dirua ematen dio MARIA LUISAri

MARIA LUISA  
Joan oraintxe bertan Juan Kruxengana eta esaiozu beste VISA bat emateko.

Bandako partaide bat, bizikleta gainean beraien albotik pasatzen da.

BANDAKOA  
Geroarte!

MARIA LUISA  
Geroarte, bai! (*Aldentzen.*) Etxean elkartuko gera, eta ez zaitetz liatu.

MARIA LUISAk aurrera egiten du Kale Nagusitik. PATRIZIOk bere kartera begiratzen du, 10 Euro besterik ez ditu.

## **11. TALLERRA. BARRUA. EGUNA**

LUZIANO, Patrizioren aita, tailerrean makinak garbitzen ari da.

LUZIANO gizon txiki eta iharra da. Munduarekin haserre dagoen horietako gizon bat.

PATRIZIO tailerrean sartzten da, eta bere kotxera inguratzen da. Mercedes gris bat.

LUZIANO  
Lagundu idak hau mugitzen.

LUZIANOk makina bati kolpe egiten dio.

PATRIZIO  
Orain ere...

LUZIANO  
Benga heldu hortik. Bat, bi eta hiru...

PATRIZIO

Joder Luziano, egun guztia makinak alde batetik bestera mugitzen. Daukan pisuarekin!

LUZIANO

Norbaitek egin behar. Heldu fuerte, Dios!

Makina izkina baten uzten dute.

PATRIZIO

*(Oso humil.)* Aita, zerbait eskatu nahi dizut...

LUZIANO

Zer?

PATRIZIO

Ba... utziko al zenidake diru pixka bat?

LUZIANO

Dirua? Zertarako?

PATRIZIO

Oporrak gainean ditugu eta... bankuan arazotxo bat izan det.

LUZIANO

Arazotxo bat? Hemen, hemen zegok inbertitua nere diru guztia! Makina hauei "puestapunto" bat egin eta hortxe aterako dek dirua.

PATRIZIO

Ez zaitetz berriro hasi. Mesede bat eskatu dizut, besterik ez. Ez badidazu dirurik utzi nahi, ez utzi, baina ez berriro hasi "puesta a punto" eta...

PATRIZIO bere kotxera inguratzen da.

LUZIANO

Ez zekiat zer saltsatan sartu haizen, baina oporretan joateko dirurik ez badaukak, etxean geratu eta punto.

PATRIZIO, unetxo bat Luziano begiratu ondoren, kotxera sartzen da.<sup>18</sup>

## 12. GASOLINDEGIA. KANPOA. EGUNA.<sup>19</sup>

---

<sup>18</sup> Segidan, Patrizioren mercedes-a tailerretik astiro irteten ikusten dugu.



Mercedesa herriko gasolindegian sartzen da. XUPER, gasolinerako langilea, PATRIZIOrengana inguratzen da.

XUPER  
Aupa Pat. Zer, bete?

PATRIZIO  
(*Kartera begirutzen.*) Ez, Xuper, emaidak kotxea garbitzeko fitxa bat.

XUPERrek bere poltsatxotik fitxa bat ateratzen du. PATRIZIOK ordaindu eta bueltak jaso ondoren (5 euro) kotxea garbitzeko makinara zuzentzen da.

Makinaren soinua entzuten dugu. Kotxe barrutik makina martxan hasi dela ikusten dugu. Ur eta xaboi txorroak kristala betetzen dute. Ondoren errodiloa bere lana egiten ikusten dugu. Gero lehortzeko makina.

PATRIZIO kotxe barruan oso serio ikusten dugu. Pentsakor. Mobila hartu eta zenbaki bat markatu du.

PATRIZIO  
Sí, Hotel Meliá Marbella... Reservas, por favor... Si, soy Patricio Etxebeste... Si es que estoy aquí... ha surgido un contratiempo... Sí, mi padre... Bueno, el caso es que no vamos a poder... Sí, eso es, cancelar la reserva... Vale, perdone las molestias, muchas Gracias...

PATRIZIOk arnasa hartzen du, sakonki.

### 13. EGONGELA. BARRUA. EGUNA.

IÑAKI eta LUZIANO poltsak ate ondora inguratzen ari dira.

LUZIANO  
Oporrak! Hau bai dela dirua barra-barra botatzea.

IÑAKI  
Zer axola dizu zuri diruak? Gu biok pansion konpletan goaz. Aitona, guk disfrutatu egin behar degu. Neska gazteak hondartzan larru gorritan ikusi eta disfrutatu.<sup>20</sup>

### 14. SUKALDEA-PATIOA. BARRUA. EGUNA.

---

<sup>19</sup> Sekuentzia hau, muntaian hurrengoaren ostean agertzen da. Hasierako parte ezabatuta dago, harik eta Patrizio garbiketa tunelean ikusi arte, non sakelakoa atera eta markatzen hasten den. Patriziok *Solymer Marbella* hotelera deitzen du, geroago bere izena errepikatu beharrean dago eta zera esaten du: *Etxebeste, con ch de Chechenia.*

<sup>20</sup> Orduan Maria Luisa sartu eta Iñakiri bere gauzak hartzera joateko agintzen dio. Iñaki irten egiten da.

MARIA LUISAk, AXUNekin hitz egiten du, leihotik.

AXUN Maria Luisa baino gazteagoa da. Gogokoena leihotik berriketan jardutea du. Neska zaharra, urduri, esajeratua.

AXUN

Kontu handiz ibili karreteran. Gero eta disgustu gehiago izaten ditun eta.

MARIA LUISA

Ez kezkatu Axun, Patrizio oso gidari ona den.

AXUN

Horrela hobe. Azkarrago joateagatik ez den lehenago iristen!

MARIA LUISA

Horixe bera esaten din berak.

AXUN

Aurten ere laurok joango zerate, ezta?

MARIA LUISAk noizbehinka kaleko ateari begiratzen dio. Urduri dago.

MARIA LUISA

Bai, Iñakik bere aldetik jo behar zuelakoan geundenan, baina nahiago din gurekin etorri.

AXUN

Hobeto!... Bakarrik utzi ezkerro badakin... festak alde guztietan... desmadrea... Gauza onik ez.

MARIA LUISA

Axun, gure Iñakitxo ez den horietako...

AXUN

Ez, ez, ez gaizki ulertu. Ez nindunan Iñakiz ari, orokorrean ari nindunan. (*Ahotsa bajatuz.*) Duela lau urte, ez zekinat akordatuko haizen, Aiastuiko Ireneren semea, Joxepiren iloba, bakarrik geratu hunan...

Etxeko atea zabaltzen entzuten dugu. MARIA LUISAk etxe barrura begiratzen du.

AXUN

Ezin den imajinatu nola aurkitu zuten etxea bueltatzerakoan.

MARIA LUISA

(*Axun mozten.*) Hemen den Patrizio...

## 15. EGONGELA. BARRUA. EGUNA.

PATRIZIO etxean sartu da. Atea zabalik utzi du. MARIA LUISA berehala inguratzen zaio.

MARIA LUISA  
(*Baju-baju, belarrira.*) Konpondu al dezu VISArena?

LUZIANO begira geratzen da.

PATRIZIO  
Benga, listo! Goazen, ataskoak harrapatu baino lehen!

PATRIZIO bere gelara zuzentzen da. IÑAKIk maleta batzuk hartu eta badoa kalera. MARIA LUISAk sukaldetik kapazoa ateratzen du. LUZIANO ere bere maletatxoarekin bere gelatik irten da. AXUN deskantsiloan agertzen da, bere katua PITXITXI inguruan bueltaka ari da.

AXUN  
Behar al dezue laguntzarik ?

MARIA LUISA  
Ez, ez lasai Axun.<sup>21</sup>

PITXITXI Etxebestetarren etxean sartu da.

AXUN  
Pitxitxi! Pitxitxi! Katu madarikatu hau.

PATRIZIO bere gelatik bueltan katua harrapatzen saiatzen da. AXUN ere etxe barruan katuari deika ari zaio. LUZIANOk maleta lurrean utzi gabe, zakarki, katua harrapatzen du, ondoren Axuni eskuetan jartzen dio.<sup>22</sup>

MARIA LUISA  
Segi behera, hau dena itxi eta banoa. (*Axuni.*) Tori janari hauek, aprobetxatuko ditun.

MARIA LUISAk poltsa bat janariz beteta ematen dio Axuni, eta berriz barrura sartzen da. Kontraleihoak ixten ditu.

## 16. PLAZA. KANPOA. EGUNA.

Kotxea portale aurrean dago kolokatua. PATRIZIO maletak ordenatzen ari da. LUZIANOk bere maleta kotxean sartzen du.

---

<sup>21</sup> Sekuentzia amaieran Maria Luisak ematen dion poltsa, muntaian hementxe ematen dio. Asunek mesfidantzaz usnatzen du, eta une horretan Pitxitxik bere besoetatik jauzi egiten du.

<sup>22</sup> Zoruaren kontra zapaltzen du katua, gero kokotetik eutsi eta horrelaxe altxatzen du.

PATRIZIO

Nora goaz hainbeste maletarekin?

LUZIANOK ez dio kasurik egiten, kotxean sartzen da. MARIA LUISA eta IÑAKI portaletik irteten dira, MARIA LUISAk poltsa handi bat darama, IÑAKIk berriz bonbardinoa. PATRIZIOk Iñakiren bonbardinoa ikusten du.

PATRIZIO

Bonbardinoa ere bai? Hemen ez dek sartzen, eraman ezak aurrean hirekin.

MARIA LUISA

*(Eskuko poltsa bat emanaz.)* Tori Patricio.

PATRICIO

*(Hartu eta maletegian sartuz.)* Ekarri.

Hasieran ezagutu ditugun bi atsoak inguratzen zaizkie.<sup>23</sup>

ATSOA

Zer, ba al zoazte?

MARIA LUISA

Bai, maletak kargatu eta ospa.

ATSOA

Zer, Marbellara, ezta?

MARIA LUISA

Bai, urtero bezela.

ATSOA 2

Benga, Kontxi, goazen.

ATSOA

Bai, presaka ibiliko zarete, eta! Bueno, jaietan ikusiko gera, ondo pasa eh!

MARIA LUISA

Bai, berdin. Ondo zaindu herria eh!

Bi atsoak buelta eman eta isilago hitz egiten hasten dira. PATRIZIOk maletegia itxi du. Denak kotxean sartzen dira. PATRIZIOk kotxea arrankatu eta irtetera doan unean grua batek pasoa ixten dio. EXENARRO, Patrizioren edadeko tipo bat, gruatik jaitsi da. Bere atzetik XIMON, gruaren gidaria, argazki kamara handi batekin agertu da.

EXENARRO

---

<sup>23</sup> Hasierako sekuentzia hori ezabatuta dagoenez, atso hauek aurreneko aldiz agertzen dira.

Aupa Etxebeste!

PATRIZIO  
Aupa Exenarro!

EXENARRO  
Ez, aupa Etxebeste! Slogana. Oraintxe okurritu zaidak.

PATRIZIO  
Uztak Exenarro. Oraindik bazeukeagu denbora.

EXENARRO  
Hobe diagu gauza hauek lehenbailehen argitu. Benga, irten kotxetik.

EXENARROk kotxeko atea zabaltzen du. PATRIZIOk ez du jolaserako gogorik.

PATRIZIO  
Baina, zer ari haiz?

EXENARRO  
Kanpainarako argazkia egin behar diagu.

PATRIZIO  
Orain? Piura honekin?

EXENARRO  
(*Besotik heltzen.*) Perfekto hago. Benga atera!

PATRIZIO  
Ximonek egin behar al du? No me jodas Exenarro!

EXENARRO  
Jarri hadi hortxe, udaletxe aurrean.

PATRIZIO udaletxe parean ipini da.

PATRIZIO  
Hi Ximon, pelikula sartu al diok?

EXENARRO  
Benga Patrizio, alkatearen irribarre hori... Eta txispazo!  
(*Patrizioren aurpegiaren flash-a.*) Beste bat pixkat serioago eta... Txispazo! Azkena, pixkat perfila ematen eta kamarari begira... Boto eske, boto eske... eta txispazo! Hori dek, Patrizio! Listo, bukatu diagu.

PATRIZIOk argazkiko irribarrea kendu eta kotxera zuzentzen da. LUZIANO kotxe barruan buruaz ezezko keinuak egiten ari da. MARIA LUISA eta IÑAKI berriz irribarretsu daude.

EXENARRO

Etxebeste, hau inportantea dek, oso inportantea! Jaiak gure kanpaina indartsu hasteko aprobetxatuko dizkiagu.

PATRIZIO

*(Kotxera sartzen.)* Trankil, Exenarro, ni txupinazorako hemen egongo nauk.

EXENARRO Maria Luisaren leihora inguratzen da.

EXENARRO

Maria Luisa! Patriziok eguzkia hartu eta deskantsatu egin behar du. Guapo ekarri!

MARIA LUISA gustura.

MARIA LUISA

Lasai, Felix, nere kontu.

EXENARRO

"Look"-a Maria Luisa. Look-a oso inportantea da. Txupinazo egunean korbatak eta txaketak fuera. Ez ahaztu! Kaleko jendea errepresentatzen degu!

PATRIZIO

Bueno, Exenarro! Bukatu al dek?

EXENARRO

Bai, benga segi eta ondo pasa. Deskantsatu eta bueltakoan "a arrasar"! Aupa Etxebeste!

MARIA LUISA

AUPA!

PATRIZIOk kotxea arrankatzen du. MARIA LUISAk Exenarrori agur bero bat eskaintzen dio.

MARIA LUISA

Exenarro hau...Artista hutsa da!

IÑAKI

Aita, kanpaina egin behar al dezue?

MARIA LUISA

Horixe, gauzak ondo egin behar dira.

EXENARRO eta XIMON zutik familia agurtzen dute. PATRIZIOk plazan dagoen jendeari bozina jo eta agur egiten die.

Herriko leku ezagunetatik pasatzen dira. Jendeak ere Etxebestetarrak agurtzen ditu.

## 17. KARRETERA. KANPOA. EGUNA

Kotxea errepidetik doa. Radioko lokutoreak irteera operazioari buruz aholkuak ematen ari da udako abesti baten gainerik.<sup>24</sup>

## 18. ZUBIPEA. KANPOA. EGUNA.

Etxebestetarren autoa irteera batean sartu eta zubi baten azpian gelditzen da.

MARIA LUISA  
Zer, Patrizio?

PATRIZIO  
ZER? Mekauen dios! (*Kotxetik irteten.*) Bankuak, seguridade soziala eta "su puta madre"!

Denak txundituta daude. MARIA LUISA Patrizion atzetik irteten da. IÑAKI eta LUZIANO begira geratzen dira.

MARIA LUISA  
Patrizio, jakin al daiteke zertaz ari zaren?

PATRIZIO  
Banko horrengatik egin degun guztiarekin eta orain atzetik ematen digute.

MARIA LUISA  
(*Oso urduri.*) Zer gertatzen da?

PATRIZIO  
Dirurik gabe utzi gaituzte.

MARIA LUISA  
Nola dirurik gabe?

PATRIZIO

---

<sup>24</sup> Muntaian ez da irratirik entzuten.

Kontu guztiak enbargatu dizkidate.

MARIA LUISA  
Zer?

PATRIZIO  
Tailerreko "Seguridade Sozial" a ordaindu gabe utzi nuen. Ez nuen pentsatzen hain urruti iritsiko zirenik.

LUZIANO kotxetik irteten da.

LUZIANO  
Taillerra ez zuten ikutuko, ezta?

PATRIZIO  
Ez, tailerrak zure izenean jarraitzen du.

LUZIANO  
Gehiegi jolastu dek. Ondo etorriko zaik, aber zer egiten deken orain.

LUZIANO ibaia aldera jaisten da. IÑAKI kotxetik jaisten da.<sup>25</sup>

MARIA LUISA  
Ez al didazu esan Visarena konponduta zegoela?

PATRIZIO  
Ez daukagu xoxik Maria Luisa. Ez visarik, ez krediturik, ez ezer.

MARIA LUISA  
Dirurik gabe, zer egin behar degu?

PATRIZIO  
Ez gera Marbellara joango.

MARIA LUISA  
Patrizio, erotu egin al zera?

IÑAKI  
Nora goaz ba?

PATRIZIO  
Ez goaz inora. Oporrak etxean pasatuko ditugu.

MARIA LUISA  
Zer? Etxean!<sup>26</sup>

---

<sup>25</sup> Iñaki ez da mugitzen kotxetik.

<sup>26</sup> Muntaiari, sekuentzia bertan amaitzen da. Segidan, errepidearen plano bat agertzen da.



IÑAKI  
Orduan zertara etorri gera hona?

PATRIZIO  
Dena ondo pentsatua daukat: Ilundu arte hemen itxarongo degu. Kanean inor ez dabilenean, ixil ixilik etxera bueltatu eta bertan izkutatuta pasatuko degu hilabete osoa.

MARIA LUISA desesperatu egiten da. Ezin du hitz egin ere. Negar egiteko zorian dago.

MARIA LUISA  
(*Haserre.*) Bueno, bueno. Zu ez zaude ondo burutik!

IÑAKI  
Nola izkutatu? Ezin al gera etxera bueltatu besterik gabe?

MARIA LUISA  
Mesedez, Iñaki. Orain ez zaitez zu hasi.

PATRIZIO  
Hilabete daramagu esaten gaur Marbellara goazela.

IÑAKI  
Ta? Iritziz aldatu degula esan eta kitto.

PATRIZIO  
Ez digu inork sinistuko.

IÑAKI  
Ba, ez dakit, goazen izebaren baserrira.

PATRIZIO  
Honetaz ezin da inor enteratu, ulertzen? Ezta izeba ere.

## **19. IBAI ONDOAN. KANPOA. EGUNA.**

Ibai ondoan LUZIANO dago, zigarro bat erretzen. PATRIZIO iristen da.

LUZIANO  
Ez diat dirurik emango.

PATRIZIO  
Ez det zure dirurik nahi. Behingoz, nik esandakoa egitea eskatzen dizut. Besterik ez.

LUZIANO  
Dena eman nian. Ikasketak, enpresa bat martxan... Dena pikutara bidali dek.

PATRIZIO  
Luziano Bale! Ez det horretaz hitzegin nahi!

LUZIANO

Bizi guztia lanean horrela bukatzeko. Etxebestetarrak txakur txikirik gabe.

PATRIZIO

Tailerra saldu bagenu, ez ginake horrela egongo.

LUZIANO

Tailerra saldu banu orain ez nuen ezer edukiko.

PATRIZIO

Begira Luziano. Putak pasa ditut eh! Putak, tailerra nere eskuetan ezin zenuelako ikusi. Sekula ez didazu gauzak nere erara egiten utzi. Egin nahi nuen aldaketa bakoitzari ezetza ematen zenion. Eta orain hor dezu tailerra. Zertarako? Herri guztiak ikus dezan zer nolako tailerra zabaldu zuen Luziano Etxebestek?

Luzianok ez dio jaramon askorik egiten.

PATRIZIO

Ez dezu konturatu nahi, baina aspaldi iritsi zitzaizun jubilatzeke ordua.

LUZIANO

Hi ez haiz Etxebeste bakarra. Hik nahi ez badek tailerra, hortxe egongo dek Iñakirentzat.

## 20. ZUBIPEA. KANPOA. EGUNA.

MARIA LUISA eta IÑAKI kotxe ondoan daude.<sup>27</sup>

MARIA LUISA

Bategatik ez bada besteagatik! Tailerra itxi zutenetik, beti igual! Nik ezin det gehiago. Zubiazpi honetan gordeta, ijituak bagina bezala!<sup>28</sup>

IÑAKI

Zergatik ez diozue dirua eskatzen laguneri bati?

MARIA LUISA

Lagunak? Zuk ez dakizu nolakoa den jendea. Dirurik gabe gaudela jakitean, gure kontura txistek ere egingo dituzte.

IÑAKI

---

<sup>27</sup> Auto barruan eserita.

<sup>28</sup> Ijitoen aipua ezabatuta.

Aitona gaixotu dela esango degu. Ez du inork ezer arrarorik susmatuko.

MARIA LUISA  
Uztazu aitona pakean, Iñaki!

PATRIZIO agertzen da, IÑAKIk ezer esan gabe alde egiten du.<sup>29</sup>

PATRIZIO  
Lasaitu zaituz. Hilabete segituan pasatzen da.

MARIA LUISA  
Imaginatzen al dezu zer gertatuko den norbaitek harrapatzen bagaitu?

Biak isilik geratzen dira.

MARIA LUISA  
Nola ateratzen gaituzu etxetik ezer esan gabe? Zergatik ez didazu ezer esan?

PATRIZIO  
Herri guztia gainean geneukan. Xoxik gabe gaudela jakiten ba dute ez naiz sekula alkate aterako. Mila buelta eman dizkiot, ez daukagu beste aukerarik. Pausu guztiak ondo ematen baditugu ez da inor enteratuko. Izan konfiantza nerekin.

MARIA LUISA  
Konfiantza? Nola nahi dezu zurekin konfiantza izatea? Beti azkena naiz zure kontu guzti hauek jakiten eta... Mesedez, Patrizio.

## 21. IBAI ONDOAN. KANPOA. EGUNA.

LUZIANO eta IÑAKI ibai hertzean daude.

IÑAKI  
Benga aitona, ez zaizu ezer kostatuko, astebete etxetik irten gabe pasa eta listo.

LUZIANO  
(*Haserre.*) Ez Iñaki! Hire aitak esandakoa egingo diagu. Ea noraino iristen geran.

---

<sup>29</sup> Gogora dezagun auto barruan dagoela, hortaz irten eta badoa, Patriziok bolantearen aurrean jarraitzen duen bitartean.

IÑAKI

Baina nola gordeko gera etxean?

LUZIANO

Hobe diagu etxe barruan gordeta egotea, kanpoan xoxik gabe ibiltzea baino.

IÑAKI

Ez zaudete ondo burutik.

LUZIANO

Entzun ondo: "un hombre sin dinero es un cadaver andante".

## **22. ZUBIPEA. KANPOA. EGUNA-GAUA.**

Plano Orokor batean iluntzen ikusten dugu. Kotxeko argiak piztu ondoren zubi azpitik irteten ikusten ditugu.

## **23. HERRIKO SARRERA. KANPOA. GAUA.**

Kotxea herrira sartzen ikusten dugu. Bat-batean Munizipalen kotxea ikusten dute. Etxebestetarrek kotxeko argiak itzali eta kotxea geldirik utzi ondoren makurtu egiten dira. Munizipalen kotxea aldamenetik pasatzen da.

## **24. TALLERRA. KANPOA. GAUA.**

Aurrera jarraitzen dute kale nagusitik, orain argiak itzalita. Kotxea tailer zahar baten aurrean geratzen da. IÑAKI kotxetik jeitsi, alboetara begiratu, atea zabaldu eta barrura sartzen da. Eraikineko ate handia zabaldu ondoren kotxea barrura sartzen da. IÑAKIk ate handia itxi egiten du.

PATRIZIOk burua ateratzen du garajetik. Albo batera eta bestera begiratu ondoren keinu bat egin eta famili osoa korrika irteten da bere atzetik. LUZIANOk bere maleta darama, IÑAKIk berriz bonbardinoa.<sup>30</sup>

## **25. HERRIKO PLAZA. KANPOA. GAUA.<sup>31</sup>**

---

<sup>30</sup> Muntaiari, autoa gelditu gabe sartzen da tailerrera, lehen ezagututako tailerrera alegia. Segidan senitarte guztiak erreskadan ateratzen ikusten ditugu, besterik ez.

<sup>31</sup> Eliza parean gelditzen dira, ezkutuan, une horretan Balin agertzen delako nahiko mozkortuta, zeinek botila kalimotxoaren azkenak egin, ondoko zaramontzi batera bota eta aurrerantz jarraitzen duen hortz artean kantari.

Plazaraino iristen dira. Izkina batetik PATRIZIOk berriro alboetara begiratzen du. Basuretako kamioiaren zarata eta argia nabaritzen dira beste izkinan. Denak korrika joaten dira ezkaratzerantz. Kamioia plazan sartzen da. Familia, plaza, arkupetatik zeharkatu ondoren ezkaratzera doa.

Etxebestetarren etxeke ezkaratza iluna dago. Bat-batean kaleko atea zabaltzen dela ikusten dugu itzaletan, Etxebestetarrak banan-banan sartzen dira eta alboetan ezkututzen dira.<sup>32</sup> Kamioia ezkaratz aurrean gelditu eta langile batek, kanpoan, basura jaso eta kamioira botatzen du. Kamioiak alde egin ahala eskailerak igotzen hasten dira.

## **26. DESKANSILLOA. BARRUA. GAUA.**

Familia lehenengo pisuko deskantsilora iristen da, isil-isilik eta nahiko azkar doaz. PATRIZIO azkena doa, gora eta behera begira eta isiltasuna eskatzen familiako besteei.

Etxeko atea zabaldu eta agudo sartzen dira denak etxe barruan. PATRIZIOk azken begirada botatzen du eskaileratara eta atea ixten du.

## **27. EGONGELA. BARRUA. GAUA.**

MARIA LUISAk ezin du lo egin, pentsakor. Leihotik begiratzen du.

## **28. IÑAKIREN GELA. BARRUA. GAUA.**

IÑAKI ohean sartuta, lo egin ezinik, bueltaka ohe gainean.

## **29. LUZIANOREN GELA. BARRUA. GAUA.**

LUZIANO ohe gainean eserita. Serio, pentsakor. Zigarro bat pizten ari da.

## **30. PATRIZIOREN GELA. BARRUA. GAUA.<sup>33</sup>**

PATRIZIO zerraldo lo dago ohean.

**BELTZERA**

## **31. ETXEA. BARRUA. EGUNA.**

---

<sup>32</sup> Ezkaratzetik Axun irteten da zarama poltsa lagatzeko. Gero ingurura begiratzen du susmo txarren batek edo hartuta, eta azkenik berriro sartzen da.

<sup>33</sup> Sekuentzia hau lehenik ikusten dugu, eta gero beste gela guztietakoak.

Etxeko egongela hutsik dago. Leihoetako zirriztuetatik eguneko lehen argi izpiak sartzen dira. MARIA LUISA egongelan leihotik begira jarraitzen du, ondoren sukaldean sartzen da.

MARIA LUISA sukaldeko armairuak arakatzen ari da. Ez dago janari askorik.

PATRIZIO sukaldean sartzen da. Sartu orduko errieta egiten dio MARIA LUISAK.

MARIA LUISA

Ez daukagu janaririk, Patrizio. Oporretara joateko frigorifikoa hustu egiten da, konturatzen zara! Hustu! (*Frigorifikoa erakusten dio.*) Zer jan behar degu?

PATRIZIO

Lasai. Oporretan ez da batere ondo jaten. (*Tripa ukituz.*) Gainera, neri ondo etorriko zait.

MARIA LUISA

(*Haserretuz.*) Begira Patrizio! Honek ez dauka batere graziazirik, eh!

Patiotik Axunen ahotsa entzuten da. Patriziok MARIA LUISAri isilik egoteko esaten dio.

AXUN (OFF)

Joxepi! Urtero bezela bakar bakarrik geratu gaitun.

JOXEPI (OFF)

Nola?

MARIA LUISA eta PATRIZIO leihora begira daude.<sup>34</sup>

AXUN

Hemen gaudela berriro ere, bakar bakarrik. Herria zaintzen!

JOXEPI (OFF)

Nik horrela nahiago. Lasai-lasai pasatuko dinagu hilabetea.

PATRIZIO

(*Ahopean.*) Joder, dena entzuten da.

Bat-batean Komuneko bonbaren soinua entzuten dugu. PATRIZIO korrika irteten da.

## 32. KOMUNA. BARRUA. EGUNA

PATRIZIO arrapaladan sartzen da komunean, tazara igo ondoren deposituko flotadorea eusten du. Uraren soinua geratu egiten da. IÑAKI bertan dago, ez du ezer ulertzen.

---

<sup>34</sup> Azken muntaian Axunek kritikatu egiten ditu Etxebestetarrak oporretan pasatzen ibiliko ote diren miseriengatik, Joxepik berriz aurpegia ateratzen die. Axunek katuari dei egiten dio. (Ikus 59. nota)

PATRIZIO

*(Baju-baju.)* Kontu handiz ibili behar diagu zaratekin, badakik nolakoak diren Axun eta hauek.

IÑAKI

Bai, hori jakinda, zuri bakarrik okurritzen zaizu familia etxean sekuestratzea.

Goiko pisuko bonbaren ur jarioa entzuten da. PATRIZIOk flotadorea askatu eta berriro ura jausten hasten da. Bi bonben zaratak nahastu egiten dira.

PATRIZIOk Iñaki begiratu eta keinu bat egiten dio: No problem.

### **33. TRASTEROA. BARRUA. EGUNA.**

LUZIANO trasteroan, bere mahaian lanean, zigarro bat erretzen du eta ogi koxkor bat botatzen die balkoian dauden uxoei.

### **34. IÑAKIREN GELA. BARRUA. EGUNA.**

IÑAKI ohe gainean eserita, bonbardinoa ateratzen du bere fundatik. Bonbardino barrutik poltsatxo bat ateratzen du. Barruan marihuana dago. Mahai gainean uzten du.

### **35. SUKALDEA. BARRUA. ARRATSALDEZ.**

Denak jaten ari dira. Oso janari gutxi dute, hiru edo lau gauza desberdin platerean (arroz zuria, poteko konfita, honttoak). Ardo ona edaten dute. Inork ez du ezer esaten. LUZIANOk asko jaten du, azkar.

### **36. EGONGELA. BARRUA. GAUA.** <sup>35</sup>

PATRIZIO, MARIA LUISA eta IÑAKI egongelan daude. Telebista soinu gabe ipinita dago. Inork ez dio kasu handirik egiten telebistari.

Patrizio zutitu eta leihora inguratzen da. Pertsianaren zirrikituetatik plazara begira ari da.

PATRIZIO

Han dago Narbaiza. Orain ere lan eta lan...

Inork ez dio erantzuten. IÑAKI leihora inguratu eta begiratzen du.

IÑAKI

Joder!

---

<sup>35</sup> Sekuentzia hasten da Patrizio eta Iñaki pertsianatik begiratu eta Narbaiza aurreko etxeko leihotik telefonora ikusten dutenean. Maria Luisa telebista ikusten ari da, eserita.

IÑAKI korrika irteten da. Sarreran dagoen diferentzialetik argia mozten du. Dena ilun geratzen da.

PATRIZIO  
Zer izan da hori?

MARIA LUISA  
Zer gertatzen da?

LUZIANO pasillotik azaltzen da.

IÑAKI  
Guk bera ikusten badegu, berak gu ere bai.

Denak geldi-geldi eta isilik geratu dira, ilunpetan.

PATRIZIO  
Bueno, ba... ohera noa. Bihar arte!

MARIA LUISA eta IÑAKI begira geratzen dira.

### **37. IÑAKIREN GELA. BARRUA. GAUA.**

IÑAKI bere gelan bakarrik, ilunpetan. Peta bat egiten du, leihotik begiratzen duen bitartean.

### **38. PATIOA-MAITEREN GELA. BARRUA. GAUA.**

Bat batean patrioko leiho bateko argia pizten da. Bertan MAITE sartu gauza batzuk ohe gainean utzi eta berriz ere badoa argia itzali ondoren.

IÑAKIk bere peta pizten du.

### **39. LUZIANOREN GELA. BARRUA. GAUA.**

LUZIANO bere gelan, ohean, zigarro bat erretzen ari da. Inbentoen liburutxo bat irakurtzen du. Kandelatxo baten bidez argizatzen du liburua. Zigarroa bukatzean, kandela itzaltzen du.

### **40. PATRIZIOREN GELA. BARRUA. GAUA.**

MARIA LUISA kamisoia jantzi eta ohera sartzen da.<sup>36</sup> PATRIZIO ohe barruan dagoela ikusten dugu. Lo zerraldo, zurrunka. MARIA LUISA ohera sartu ahala, PATRIZIOk, lo, bizkarra ematen dio. MARIA LUISA pixka bat molestatu egiten da.

### **41. SUKALDEA. BARRUA. EGUNA.**

---

<sup>36</sup> Lehenik, eserita eta pentsakor egon dela ikusten dugu.



MARIA LUISA berriz ere sukaldean ikusten dugu. IÑAKI sartzen da.

IÑAKI  
Egunon ama.

MARIA LUISA  
Egunon?

IÑAKIk ez daki zer hartu. Apal gainean dituzte janari guziak. Oso gutxi eta normalean inoiz jaten ez diren horietakoak: Olibak, gindilak, Pasak, etab.<sup>37</sup>

IÑAKI  
Hau erokeria bat da. Zerbait egin behar degu, ama.

PATRIZIO sukaldean sartzen da.

MARIA LUISA  
Patrizio, tontokeria honekin oraintxe bukatu behar degu.  
Goazen hemendik, bi egun pasatzeko ere ez daukagu eta.

PATRIZIOk 5-eko billete bat ateratzen da.

PATRIZIO  
Honekin, nora nahi dezu joatea?

MARIA LUISA  
Zoaz oraintxe bertan Luzianorengana eta konpondu dena.

PATRIZIO  
Maria Luisa, ez degu honetaz gehiago hitzegingo. Ez gera hemendik mugituko.

PATRIZIO sukaldetik irteten da.<sup>38</sup>

IÑAKI  
Ama, aitonak dirua al dauka?

MARIA LUISA  
Eduki behar luke. Tailerra itxi zutenetik, ez diot perrotxiki bat gastatzen ikusi.<sup>39</sup>

IÑAKI  
Seguru koltxoi azpia diruz josita daukala.

---

<sup>37</sup> Iñakik edalontzi bat hartzen du eta urez betetzera doa baina txorrotak zarata handia atera eta segidan itxi du. Bere hurrengo testua ere ezabatuta dago. Patrizio ez da inoiz sukaldera sartzen, egongelan jarraitzen du denbora guztian.

<sup>38</sup> Sukaldera hurbildu baizik ez da egin, eta hau esanda alde egiten du.

<sup>39</sup> Sekuentzia hemen amaitzen da. Ondoren OFF-en entzuten dugun elkarrizketa tokiz aldatuta dago, 94. sekuentziara alegia.

MARIA LUISA  
Horixe bera esaten zuen zure aitak.

IÑAKI  
Orduan? Ez al zera inoiz fijatu?

MARIA LUISA  
Ni Luzianoren gelan ez naiz sekula sartu.

Bat batean, Axunen ahotsak mozten du solasaldia.

AXUN (OFF)  
Joxepi! Enteratu al haiz? Poligonoko etxeetan lapurrak izan omen ditun.

JOXEPI (OFF)  
Zer?

AXUN(OFF)  
Lapur batzuk, poligonoko farmaziakoen etxean sartu direla.

MARIA LUISA eta IÑAKI leihora inguratu dira.

AXUN (OFF)  
Egia esan, ni poztu egiten naun. Zaindu herria, zaindu herria! Zer nahi dute, euren etxeetan guardiak egiten hastea ala? Eta beraiek "viva la vida"?

IÑAKI Axun esandakoarekin flipatzen dago.

JOXEPI (OFF)  
Jexux Axun! Ez da hainbesterako! Zer kostatzen zaigu ba, herria pixka bat zaintzea?

## **42. SUKALDEA. BARRUA. EGUNA.**

MARIA LUISAk atun lata bat lau zatitan banatzen ikusten dugu. Ondoren plateretan banatzen du. Mahaian erdian kazueta bat dago, arroz zurirekin beteta. PATRIZIOk, IÑAKIk eta MARIA LUISAk platerera zerbitzatzen dute arroza. Ondoren LUZIANO bere platera goraino betetzen du eta zuzenean jaten hasten da. MARIA LUISAk Luziano begiratzen du, gogor. Gero konplizitatea bilatzen du IÑAKIrengan.

## **43. PATRIZIOREN GELA. BARRUA-KANPOA. GAUA.**

MARIA LUISA ohean etzanda dago. Pentsakor. Patrizioren zurrungak entzuten ditugu. MARIA LUISAk albora begiratzen du eta PATRIZIO zerraldo lo deskubritzen dugu. MARIA LUISA sutan jartzen da. PATRIZIOk beste zurrunka sorta eskaintzen digu. MARIA LUISAk zuzenean esnatu egiten du Patrizio.

MARIA LUISA  
Esnatu Patrizio, esnatu!

PATRIZIO  
(Lo.) Zer?

MARIA LUISA  
(Sutan.) Zer? Ez daukazu lotsarik. Zure familia horrela ezkutarazi eta hain lasai lo egiteko gibelak eduki behar dira. Hartu itzazu zure gauzak eta zoaz hemendik oraintxe bertan.

PATRIZIOk ez du ezer ulertzen.

PATRIZIO  
Baina Maria Luisa, zer nahi dezu egitea?

MARIA LUISA  
Eskaiozu dirua Luzianori eta goazen hemendik.

PATRIZIO  
Ez det Luzianoz ezer jakin nahi.

MARIA LUISA  
Ez badezu potrorik zure aitarekin hitzegiteko, neronek konponduko beharko ditut hemen gauzak. Ez daukat zure beharrik. Alde hemendik!

PATRIZIO, galtzontzilotan eta tiranteko kamisetan, jaiki, pelukina hartu eta alde egiten du.

#### 44. ETXEA. BARRUA. EGUNA.

IÑAKI egongelan dago, zutik sofara begira. Han PATRIZIO dago, etzanda, lotan, pelukina jantzita. MARIA LUISA agertzen da pasillotik. IÑAKI inguratzen zaio

IÑAKI  
Zer egiten du hor?

MARIA LUISA  
Nazka-nazka eginda nauka. Gaur bertan aterako gera hemendik. Goazen.

MARIA LUISA eta IÑAKI pasillora zuzentzen dira. Trasteroan LUZIANO dagoela ikusi ondoren.

MARIA LUISA  
Ez dedila hortik mugitu ere egin!

IÑAKI trastelekura sartzen da. LUZIANO estoreak josten ari da, josteko makina zahar batean.

IÑAKI

Joder aitona, ez zara hemendik sekula ateratzen eh? Beti lanean.

LUZIANO

Bai Iñaki, lanik gabe ez zegok ezer. "El trabajo dignifica al hombre". Pasaidak haria.

IÑAKIk haria pasatzen dio.

IÑAKI

Ona balitz ez lukete pagatuko eta lana egiteagatik pagatu egiten dute.

LUZIANO

Horregatik. Hik ba al dakik zer den dirurik gabe egotea? Lagunak eskibatzen, txikito bat bera ere pagatzeko dirurik ez dekelako.

MARIA LUISA dena entzuten ari da, pasilloan. Inork ikusten ez duela ziurtatu ondoren Luzianoren gelan sartu eta atea ixten du.

Koltxoia altxatu eta ohe azpian begiratzen du. Ez dago ezer, somier azpian Luzianoren maleta dago. Armairuak arakatzen hasten da.<sup>40</sup>

Trastelekuan LUZIANO Iñakiri argazkiak erakusten ari zaio.

LUZIANO

Hamahiru urterekin hasi ninduan lanean, sastrerian. Korrika alde batetik bestera. Hemezortzi urterekin nere tailer propioa nian. Hantxe hasi gintuan txapelak egiten. Egunekeo bimila txapel...

IÑAKI

Orain berriz txapela ez du inork erabiltzen.

LUZIANOri ez dio graziarik egin, trastelektatik irteten da.

LUZIANO

Lagunduidak tela bila.

IÑAKIk ez du erreazionatzen eta atzetik jarraitzen dio, urduri. LUZIANOk bere gelako atea gaintitzen du, IÑAKI lasaitu egiten da. Egongelara iristean LUZIANO gelditu eta buelta ematen du.

---

<sup>40</sup> Tartekatuta, oraintxe ikusten dugu Patrizio sofán lo seko eta zurrungaka, inguruan beste inor ez dagoela.

LUZIANO  
Banizkian mahoizko zahar batzuk...

LUZIANOk, Iñaki gainditu ondoren, bere gelaraino iritsi eta atea zabaltzen du. Bertan armairu aurrean MARIA LUISA belaunikaturik aurkitzen du, armairua eta tiraderak zabalik. Bankuko kartilatxoak eskuan duelarik.

LUZIANOk ezer esan gabe aurrera egin eta atea ixten du. IÑAKI kanpoan geratzen da.

LUZIANO  
Zer egiten dezu hemen?

MARIA LUISA  
(Harrapatua.) Zer nesezidade daukagu horrela bizitzeko?

LUZIANO  
Nik ez daukat inongo nesezidaderik, hemen arazoak zuek dituzue. Bizi guztia ederki daramazue besteen kontura. Kolpe zorririk jo gabe.

MARIA LUISA  
Kontuz zer esaten dezun!

LUZIANO  
Egun guztia dirua alperrik botatzen, besteen aurrean zeozer zerala demostratzeko...

MARIA LUISA  
Nahikoa da, Luziano!

LUZIANO  
Zuk dezu kulpak guztia. Patriziori ederki berotu zenion burua. Sinpatika-sinpatika iritsi zinen, diruaren atzetik... Eta orain, nondik txupatu ez dagoenenan, zer? Orain zer?

MARIA LUISAk kolpe bat ematen dio Luzianori izkina batetik hartu duen makila batekin. LUZIANO lurrera jausten da, soinu handia eginez.

IÑAKI kanpoan dago, ez daki zer egin.<sup>41</sup> PATRIZIO pasillora ateratzen da.

PATRIZIO  
Zer gertatzen da?

MARIA LUISA bigarren kolpea emateko posturan dago. LUZIANO lurretik begiratzen du. PATRIZIOk atea zabaldu eta makila heltzen du.

Une horretan tinbrea entzuten da.

---

<sup>41</sup> Hementxe bukatzen da sekuentzia.

AXUN (OFF)  
Zein dabil hor????

#### **45. ETXEA. BARRUA. EGUNA.**

*(Musikarekin lagunduta etxeko txoko ezberdinak ikusiko ditugu plano jeneraletan. Orain arte ikusi ez dugun ikuspuntutik, hau da, ez dugu leiho bat ere ikusiko, ez dugu jakingo eguna ala gaua den.)*

Kamera poliki-poliki sukaldea zeharka ari da. PITXITXI katua arraskara igo eta platerak zurruputzen hasten da. Sukaldea hankaz gora dago. Basura poltsak izkina batean daude.

Komuna baldez beterik dago. Ur tanta bat jausten ikusten dugu. MARIA LUISA tazan eserita dago, lur jota.

Trastelekuan ere ez dago inor.

LUZIANO bere ohean eserita. Gogor.

IÑAKI gelako aulkian jarrita dago. Dekoratu elementu bat gehiago dela ematen du.

Patrizio eta Maria Luisaren gelan ez dago inor.

PATRIZIO despatxuan dago.

#### **46. EGONGELA-SUKALDEA. BARRUA. EGUNA.**

Egongelan dena geldi-geldi dago. Pasilloa hutsik dago. INAKIren gelako atea zabaltzen da. IÑAKIk burua atera eta bi aldetara begiratzen du. Ez dago inor. Sukaldera zuzentzen da. Mahaiko hondarrak begiratzen ditu, zerbait hartzen du jateko. Ate bat entzuten da. IÑAKI sukaldeko ate atzean gordetzen da. LUZIANO sukaldera zuzendu eta ardo botila, saka-kortxo eta baso bat hartzen ditu. IÑAKI larri dago ate atzean gordeta. LUZIANO trastelekura zuzentzen da. IÑAKI ate atzetik irteten da. MARIA LUISA komunetik ateratzen da. Makillajea deseginda, erabat lur jota. Zuzenean bere gelara zuzentzen da. IÑAKI berriro ere ate atzean gorde da. PATRIZIO despatxutik irteten da. Egongela eta sukaldean begiratzen du, ez du inor ikusten. Sukaldea zikin-zikin dago. Komunera zuzentzen da. Komunean sartu eta urez betetzen du baldea. INAKI bere gelara iristen da.<sup>42</sup>

#### **47. PASILLOA - SUKALDEA. BARRUA. ARRATSALDEA.**<sup>43</sup>

<sup>42</sup> Muntaia hau sinpleagoa da, zenbait mugimendu murriztuta daude, komuneko ekintzak adibidez.

<sup>43</sup> Elkarrizketa hau arinago entzuten da, aurreko muntaiarekin batera, partez OFF-ean. Mobilaren bibradorea ez da entzuten. Bertoko ekintzetatik bakarrik hasierakoa –zaramakoa- ikusten dugu.

PATRIZIOk pasilloko bazter batean pilatu du basura guztia, fris-frisa botatzen dio eta sukaldera sartzen da. Sukaldea nahikoa txukundu du, sutan kazuela bat du ura irakiten. Sua itzali eta armairua zabaltzen du. Ez dago ia ezer.

Mobila dantzan hasten da. Baxu-baxu entzuten da bibradorea. Sakelakoa hartzen du.

PATRIZIO

Bai? Aupa Rosa!... Ez, ez dago hemen... Gaur afaltzeko? Ez, ez, ez gaur ez gaude umorez... Ez hemen afalduko degu... Ez... Bale, Zure partez , bai, esango diot... Bai, berdin. Agur.

Bertatik Starlux kaxa hartu eta pastilla bat txikitu ondoren uretan nahasten du. Gero bi basotan botatzen du.<sup>44</sup>

#### **48. TRASTEROA. BARRUA. EGUNA.**

IÑAKI suabe-suabe sartzen da. LUZIANOK bizkarra ematen dio ateari. Aulki batean eserita dago. Ardo trago bat edaten ari da. Aterantz begiratzen du. LUZIANOK bizkarra ematen jarraitzen du.

IÑAKIk ez daki zer egin. LUZIANOK usoei ogi apur batzuk botatzen dizkie. IÑAKIri begiratu eta zutitu egiten da. Leihora inguratu eta ogi gehiago botatzen du. Usoak ogi apurrak jaten dituzte.

#### **49. PATRIZIOREN GELA. BARRUA. EGUNA.**

MARIA LUISA ispilu aurrean dago. Malkoak ditu begietan. Eskuarekin malkoak kendu eta begietako errimel beltza aurpegian sakabanatu zaio. PATRIZIO gelan sartzen da, saldatxo bat dakar.

PATRIZIO

Hartzazu hau. Bi egun daramazu ezer jan gabe!

MARIA LUISAk, bizkarra ematen, ez dio kasurik egiten. PATRIZIOk saldatxoa apal gainean utzi eta berriz ere irteten da.

#### **50. TRASTEROA. BARRUA. ARRATSALDEA.**<sup>45</sup>

PATRIZIO bi basoekin sartzen da trastelekuan.

PATRIZIO

Saldatxoa.

LUZIANO eta IÑAKI makurturik daude, leiho ondoan.

BIAK

Shhhiiii!

---

<sup>44</sup> Hemen 56., 57., 58. eta 59. sekuentziak agertzen dira azken muntaian.

<sup>45</sup> Hemen, labur-labur, Luziano eta Iñaki baizik ez ditugu ikusten, biak usoentzako tranpari adi.

IÑAKIk leioa seinalatzen dio. Leioan sare batekin eginiko tranpa bat dago, gainean uxoa dabilta. PITXITXI katua azaltzen da eta uxoa uxatzen ditu.

LUZIANO  
Katu puta hau!

PATRIZIOk basoak mahai gainean utzi eta alde egiten du. LUZIANOk eta IÑAKIk salda hartzen dute.

### **51. KOMUNA. BARRUA-KANPOA. ARRATSALDEA.**

PATRIZIO baldeak betetzen dago orain. Leihotik begiratzen du.

### **52. PATIOA. KANPOA. ARRATSALDEA.**

Patioko leiho batean urdaiazpiko bat ikusten du, zintzilik.

Jada, LUZIANO, IÑAKI eta PATRIZIO urdaiazpikoa begira daude (irribarretsu).<sup>46</sup>

### **53. KOMUNA. BARRUA-KANPOA.GAUA.**<sup>47</sup>

LUZIANO ur azpian arrantza egiteko arpoia kargatzen ari da. IÑAKIk leioa zabaltzen du. Kontu handiarekin ari dira zarata asko ez ateratzeko. LUZIANOk fusila hartu eta urdai azpikoa apuntatzen du. PATRIZIO atzerago dago, urduri.

### **54. PATIOA. KANPOA. GAUA.**<sup>48</sup>

AXUNen gelako argia pizten da. LUZIANO eta IÑAKI atzeratu eta paralizatuak geratzen dira. AXUNek janaria jartzen dio Pitxitxiri (pentsu pila eta esne katilu handia).

AXUN  
Zatoz, Pitxitxi!

PITXITXI katua inguratu eta jaten hasten da. LUZIANOk ez dio begirik kentzen. AXUNek argia itzaltzen du.

LUZIANO berriro leihora inguratzen da. Katua apuntatzen du, gero berriz urdaiazpikoa eta tiro egiten du. Arpoiak urdaiazpikoa zulatzen du. Katua berriz korrika irteten da.

Kontu handiz tiraka hasten da. Zaila dago urdaiazpikoa bere tokitik ateratzen. Ematen du lortuko dutela, baina ezin dute urdaiazpikoaren soka kakotik askatu. LUZIANOk tiroi

---

<sup>46</sup> Maria Luisa ere beraiekin dago.

<sup>47</sup> Luziano ez da arpoia kargatzen ari, dagoeneko prest ikusten dugu. Sekuentzia luzatu egiten da, hurrengoaren ekintzak bere barne hartuz, alegia, hurrengoa osorik barru aldetik ikusten dugularik.

<sup>48</sup> Kanpoan barik barruan gertatzen da sekuentzia gehiena, aurreko sekuentziaren luzapena bezala. Katua berriz ez da inon agertzen. Fusila ez da erortzen, urdaiazpikoaren aurrean dagoen txori kaiola bat bai, ordea. Axunenean argia ikustean, arpoia patiora bota eta leiho itxiko dute agudo.



indartsu bat ematen dio, urdaiazpikoa bere kakoarekin askatu eta behera jausten da. Kristoren zarata entzuten da, kristal baten gainean erortzen zaie fusila. PATRIZIOk zaratarekin asko sufritzen du.

AXUNen argia pizten du. LUZIANOk leihoa itxi eta denak makurtu egiten dira. AXUNek leihoa zabaldu eta patiora begiratzen du.<sup>49</sup>

AXUN  
(*Beldurtuta.*) Zein dabil hor?

LUZIANO  
Miauuuuuu!

AXUN  
(*Moskeatua.*) Zein dabil hor?

AXUNek dena ondo begiratu ondoren, leihoa itxi eta argia itzaltzen du.<sup>50</sup>

## 55. PATIOA-ETXEA. KANPOA. EGUNA.<sup>51</sup>

Urdaiazpikoa ikusten dugu. Arpoia erdi-erdian sartua dauka, fusila ere alboan.

AXUN(OFF)  
Joxepi! Joxepi! Atzo gauean, ordu biak aldera, ez al huen ezer aditu?

JOXEPI (OFF)  
Zer?

IÑAKIk patiora begiratzen du. AXUN ikusten du.

AXUN(OFF)  
(*Altuago hitz egiten du.*) Atzo gauean zaratak entzun nituela patioan.

JOXEPI (OFF)  
Ah... Zaratak? Niri gaez ez zidan ezertxok ere esnatzen!

LUZIANO sukaldean dago zerbait jaten. Dena entzuten ari da.

AXUN (OFF)  
Ba nik oso ondo entzun nizkinan. Seguru nagon norbait zebilela, gainera MIAU egin zinan.

JOXEPI (OFF)

---

<sup>49</sup> Azkeneko zati hau BARRUAN/KANPOAN modura muntatuta dago.

<sup>50</sup> Leihoa itxi aurretik pilula batzuk hartzen ditu.

<sup>51</sup> Sekuentzia osoa barrutik ikusten dugu. Iñakik ez du kanpora begiratzen.

Miau?

AXUN (OFF)

Bai, miau. Ni txoliña naizela pentsatuko zinan harek. Ba argi ibiltzea din.

PATRIZIO, zutik, bonbaren katea eskuan duela leihotik gora begira dago. Zain egoten aspertu eta leihotik begira hasten da. Bat-batean goikoek bonba botatzen dute. Patriziok entzun orduko presaka bonba botatzen du.

JOXEPI (OFF)<sup>52</sup>

Okerrena, horiek etxe barruan harrapatu ezkerro, hartzen den sustoa izaten dun.

AXUN (OFF)

Hemendik aurrera kontu handiz ibili beharko dinagu. Disgusturik nahi ez badegu behintzat.

**BELTZERA**<sup>53</sup>

## 56. PATRIZIOREN GELA. BARRUA. GAUA.<sup>54</sup>

MARIA LUISAk bere gelatik irten gabe jarraitzen du.

PATRIZIO gelan sartu, saldaren katiluak hartu eta irtetera doa.

PATRIZIO

Zerbait gehiago behar al dezu?

MARIA LUISA

Geratu zaitez.

PATRIZIO berarengana inguratu eta kleenex bat ematen dio. Eskuak sorbaldan ipintzen dizkio. MARIA LUISAk begiak garbitzen ditu.

MARIA LUISA

Txikitan, ezkutaketan jolasten, beti sukaldeko armarioan gordetzen nintzen. Gure bila ari zena armario aurretik pasatzen ikusten nuen zirrikitu batetik, behin eta berriro, baina inoiz ez zen ate ondoan gelditzen. Hasieran gustora kilikatzen nuen baina minutuak pasa ala, orduak ziruditen

---

<sup>52</sup> Joxepik pentsatzen du miau egin bazuen benetako katua izango zela. Axunek berriz, ondo ezagutzen ditu katuak eta ezetz dio. Joxepik lasai hartu eta lotara joateko gomendatzen dio, hainbeste pilula hartu beharrean. Amaieran, sukaldean Luziano bi uso ekarri dizkio Maria Luisari.

<sup>53</sup> Jarraian, 60. sekuentzia agertzen da.

<sup>54</sup> Esanda bezala, sekuentzia hau, baita 57., 58. eta 59. ere, arinago agertzen dira, 47. sekuentziaren ostean, urdaiazpikoaren ehiza baino lehen.

eta gordelekutik kanpora irtetzen nintzen. Nitaz ahaztu zirela pentsatse hutsarekin, gaixotu egiten nintzen.<sup>55</sup>

PATRIZIO

Nik ez zaitut ahaztuko.

MARIA LUISA

Plazara irten eta denei kontatzeko gogoia ematen dit.

PATRIZIO

Maria Luisa, ezin du bakoitzak bere aldetik ibili. Laurok elkarrekin egin behar degu aurrera. Ahaztu gertatutakoa... Berrero hasteko aukera degu, Maria Luisa.

MARIA LUISA negarrez hasten da. PATRIZIOk besarkatu egiten du. Besarkada gogor bat ematen diote elkar.

Motor zarata batek apurtzen du momentu hau.

PATRIZIOk lehoitik begiratzen du, ez du ezer ikusten.<sup>56</sup> Kristoren zarata entzuten da. Gelatik irteten da. MARIA LUISAk atzetik jarraitzen dio.

## **57. EGONGELA. BARRUA. GAUA.**

LUZIANO ETA IÑAKI ilunpetan leihotik begira daude. MARIA LUISA eta PATRIZIO iristen dira.

PATRIZIO (OFF)  
Zer da?

PATRIZIO leihoraino sartzen da. MARIA LUISA moztuta geratzen da. LUZIANOK bere lekua eskaintzen dio.

## **58. LEHIOA-PLAZA. KANPOA. GAUA.**

Ez da ezer ikusten. Motor zarata entzuten da. Bat-batean, denen aurrean EXENARRO, garabian igota agertzen da, bere ondoan XIMON ikusten dugu, garabia maneiatzen.<sup>57</sup>

## **59. PLAZA. KANPOA. GAUA.**

Plazatik Etxebestetarren etxea ikusten dugu. EXENARRO eta XIMON garabiaren gainean Etxebestetarren etxeko balkoian pankarta ipintzen ari dira. Ez dago beste inor plazan. Balkoi guztia zeharkatzen duen pankartan "Aupa Etxebeste!" irakur dezakegu.

---

<sup>55</sup> Maria Luisa hemen hasten da negar-zotinka, eta ez beranduago.

<sup>56</sup> Sekuentzia bertan amaitzen da.

<sup>57</sup> Patrizio barrurantz bihurtzen da eta zertan ari diren galdetzen du

## 60. ETXEA (MUNTAIA). BARRUA. EGUNA.<sup>58</sup>

Tranpan jausita bi uso ikusten ditugu.

LUZIANOK usoak tranpatik ateratzen ditu.

PATRIZIO usoak lumatzen ari da.

IÑAKIk usoak sukaldera eramaten ditu.

MARIA LUISAk eta IÑAKIk kazuelan ipini eta sutan jartzen dituzte.

## 61. SUKALDEA. BARRUA. EGUNA.

Laurak uxok bazkaltzen ari dira. LUZIANOK kristoren apetitua dauka, baina ez du lehen bezala jaten, orain berea bakarrik jaten du.

AXUN (OFF)<sup>59</sup>

Han egongo ditun denak, hondartza xiztrin batean sartuak, toaila jartzeko lekua aurkitu ezinik, arnasa hartzeko ere baimena eskatzen! Gero bueltakoan denek gauza bera esaten dituen. Bizi guztiko opor onenak... Gustora begiratuko nizkinake noizean behin zulo txoko batetik. Zenbat mixeria pasatzen duen jendeak, besteen aldean ondo bizi direla demostratzeko.

LUZIANOK platera ondo hustu ondoren badoa. IÑAKI aspalditik zegoen aitona noiz jaikiko zain. IÑAKI platera fregaderan kontu handiz utzi eta badoa. MARIA LUISA mahaia jasotzen hasten da. PATRIZIO laguntzen saiatzen da. Baina lagundu baino gehiago traba egiten dio.

MARIA LUISA  
Uztazu, neronek egingo dut.

PATRIZIO  
Bion artean egingo degu.

PATRIZIO trapua pasatzen hasten da, nahiko dorpe.

MARIA LUISA  
Tira, kendu zaitez paretik, lehenago bukatuko det nik bakarrik.

PATRIZIO ez dio kasurik egiten eta laguntzen jarraitzen dio.

## 62. EGONGELA. BARRUA. EGUNA.

LUZIANO eta IÑAKI egongelako leihoetan "storeak" kolokatzen ari dira. Gortina antzeko tela beltz batzuk. Leiho guztiek dute bere storea. Luziano sarrerara zuzendu eta

---

<sup>58</sup> 54. garren ostean agertzen da hau, eta dezente laburtuta: usoak lumatzen, sukaldatzen, bazkaltzen, lumak batzen, platerak garbitzen, eta segidan eguneroko irudi batzuk erantsi dira: arropa garbitzen, estoreak prestatzen...

<sup>59</sup> Axunen dialogo hauek 31. sekuentzian agertu dira.

diferentziala igotzen du. Berriro argia dugu etxean. PATRIZIO eta MARIA LUISA egongelan agertzen dira. Telebista ere martxan jartzen da. Denak sofan esertzen dira ikustera.

Notiziak ematen ari dira. Abuztuko lehen hamabostaldian izandako kotxe istripuak ematen ari dira.

IÑAKI<sup>60</sup>

Joder! 167 hildako izan dira 15 egun hauetan.

PATRIZIO

Azkenean eskerrak eman beharko dizkidazue oporrak etxean pasatzeagatik!

Denak harrituta geratu dira Patrizioaren txistetxoarekin.

PATRIZIO

Joder, hilabete osoa txiste bat bera ere egin gabe pasatu behar badegu! A zer plana!

LUZIANO jaiki eta badoa. IÑAKI bere atzetik. MARIA LUISA bakarrik geratu da.

PATRIZIO

Baina, nora dihoaz?

MARIA LUISA

Euren gauzak egitera joango dira, nik zer dakit ba!

PATRIZIO pentsakor geratu da.

PATRIZIO

Ba ni ere, nere gauzak egitera noa.

PATRIZIO egongelatik irteten da. Ondoren despatxoan sartzen da.

### **63. DESPATXOA. BARRUA. EGUNA.**<sup>61</sup>

PATRIZIOk arkatz pilo bati punta atera dio dagoeneko. Arkatz guztiak pote batean sartzen ditu. Jaiki eta distraitzeko zerbaiten bila ari da. Buelta hasten da. Apal baten pendulu bat martxan ipintzen du. Pendulua begira dago. Arkatz batekin pendulua geratzen saiatzen da, arkatzari punta apurtzen zaio. Arkatza beste arkatzekin uzten du.

PATRIZIO despatxoan bueltaka ari da. Armairu aurrean geratzen da, liburu bat hartzera doa, argazki bat lurrera jausten zaio. Lurretik hartu eta argazkia begira geratzen da. Berriro argazkia bertan utzi eta behatzarekin apaleko hautsa kentzen du. Ondoren

---

<sup>60</sup> Iñakiren orde, telebistako esatariak aipatzen ditu datuok.

<sup>61</sup> Lehenik sartu eta tarte batean zutik geratzen da, zer egin ezean.

armairuko gauza guztiak begira jarraitzen du, opor batzuetako souvenir baten aurrean geratzen da.<sup>62</sup>

#### **64. ETXEA.BARRUA. EGUNA.**

PATRIZIO pasillotik eskuak atzean dituela doa. Pasilloko koadroak begira ari da. Behatzarekin hautsa duela konprobatzen du.<sup>63</sup> Iñakiren gelako atea zabalik dago, barrura begiratzen du. IÑAKI bonbardinoa jotzen ari da. Soinua ahoarekin egiten du.

PATRIZIO bera begira geratzen da. IÑAKI bere aita bertan dagoela konturatzen da.

IÑAKI  
Zer?

PATRIZIO  
Ez, ezer ez.

PATRIZIO gelatik irten eta pasilloan barrena jarraitzen du. Trastelekuko atea zabalik dago, bertara begiratzen du. LUZIANO ehizan ari da. PATRIZIO bera begira geratzen da. LUZIANO ohartu da norbait begira dagoela. LUZIANOK Patriziori begiratzen dio. PATRIZIOk agur egin eta badoa.

#### **65. EGONGELA. BARRUA. ARRATSALDEA.**

MARIA LUISA telebista aurrean dago, sofan jarrita, gidoi bat irakurtzen ari da. PATRIZIOk mandoa hartu eta zapping pixka bat egiten du.

PATRIZIO  
Ez al zara aspertzen?

MARIA LUISAk ez dio kasu handiegirik egiten.

PATRIZIO  
Ba ni asper-asper eginda nago.

MARIA LUISA  
Egin ezazu zeozer.

PATRIZIO  
Zer nahi dezu egitea? Ez daukat afiziorik, Maria Luisa! Herri honetan afiziorik ez duen bakarra izango naiz. Sikiera periodikoa bagenu.

---

<sup>62</sup> Alderantziz, muntaian erloju zaharrez beteriko armairua da. Bat atera, korda eman eta iratzargailua martxan jartzen zaio.

<sup>63</sup> Lehenik komunera sartu eta pisatu egiten da, asperraren asperrez.

Isiltasuna egiten da. MARIA LUISAk gidoia irakurtzen jarraitzen du. PATRIZIOk berriro telebistan zapping egiten du. Ez du gustuko ezer aurkitzen, gidoiari begiratzen dio.

PATRIZIO

Zer ari zera irakurtzen? "Los miserables"?

MARIA LUISA

Aurtengo antzerkiaren gidoia.

PATRIZIO

lazkoa bai ona. Hortik dago bideoa. Zergaitik ez degu ipintzen?

PATRIZIO bideo zintak nahasten ari da.

MARIA LUISA

Patrizio, Mesedez eh!

PATRIZIOk topatu du zinta. Bideoan sartzen du.

PATRIZIO

Hara, hementxe dago.

MARIA LUISA

Patrizio, mesedez. Ez ezazu hori jarri!

PATRIZIO

Tira Maria Luisa, ez zaitez ttuntuna izan, ederki asko zaude eta.

Antzerkiko irudiak (Operako Fantasma) ikusten hasten dira. MARIA LUISA eta EXENARRO eszenario gainean ikusten ditugu. Antzezpena frontoian dela ikusten dugu.

PATRIZIO

Bikote ederra egiten dezue Exenarro eta biok. Mitikoak zaudete.

MARIA LUISA

Bueno bueno, Patrizio.

PATRIZIO

Gauzak diren bezela, Xuper adibidez ez dago hain ondo.

MARIA LUISA

Antzerkia egiten zuen lehen aldia izan zen.

PATRIZIO gustura dago antzerkiko irudiak ikusten. MARIA LUISAk ere ez du detailerik galtzen.

PATRIZIO  
Ikusi, ikusi Exenarro! Mitiko!

#### **66. PATIOA-IÑAKIREN GELA. KANPOA-BARRUA. EGUNA.**<sup>64</sup>

Eguzkiak patioko goialdeak jotzen ditu. Bandaren abestia klarinete batekin jota entzuten dugu.

*(Musika honek jarraitu egingo du sekuentzia batzuetan.)*

Kamara PITXITXI dagoen leiho paretik pasatzen da. Patioko beste leiho batean MAITE klarinetea jotzen ikusten dugu. Azkenean Iñakiren gelan gaudela ohartzen gara. IÑAKI leiho ondoan, bonbardinoa eskuan duelarik, teklak mugitzen ditu, ahoarekin berriz, bonbardinoaren zarata kantari dabil. Gustura ari da Maiteri begirik kendu gabe.

#### **67. LUZIANOREN GELA. BARRUA. GAUA.**<sup>65</sup>

LUZIANO txukun-txukun ari da janzten. Bizarra ere ederki moztuta dauka.

#### **68. PATRIZIOREN GELA. BARRUA. EGUNA.**

MARIA LUISA ispilu aurrean orrazten ari da. Oso elegante dago jantzita.

#### **69. KOMUNA. BARRUA. EGUNA.**

PATRIZIO bizarra mozten ari da. PATRIZIOk, baxu-baxu txistua jotzen du. Goikoak bonba bota duenean Patriziok katetik tira egiten du.

#### **70. PLAZA. KANPOA. EGUNA.**

Herriko plaza jendez betea dago. IÑAKI leihotik begira ikusten dugu. Plazako arkupetan dauden bere lagunei begira geratzen da. BALIN, Patriziok tabernan kontatu zuen txistea kontaktzen ari zaie besteei. BALIN justu zezena "jasotzen" ari da.

#### **71. EGONGELA-SUKALDEA. BARRUA. EGUNA.**

IÑAKI disfrutatzen ari da bere lagunak ikusten..

PATRIZIO bi bermutekin iristen da.

---

<sup>64</sup> Sekuentzia hau lekuz aldatuta dago, hain zuzen 72 eta 73 sekuentzien artean kokatuta dago muntaian. Pitxitxi ez da agertzen.

<sup>65</sup> Hauxe da segida zuzena: Luziano komunean bizarra kentzen, segidan Patrizio bere gelan janzten, eta azkenik Maria Luisa bere gelan orrazten



PATRIZIO

A zer eguraldia, gaur bai giroa plazan.<sup>66</sup> Hartzak Vermuttxo bat, Iñaki! Janaririk ez, baina mueblebarra konpleto zeukagu!

PATRIZIOk bermuta pasa eta IÑAKIk tragotxo bat ematen dio. Biak plazara begira geratzen dira.

PATRIZIO

Aiba Dios! Narbaiza!

PATRIZIO sukaldean sartzen da. Arrautza kaxak paretetan jarrita daude (intsonorizazio modura).<sup>67</sup>

PATRIZIO

Maria Luisa. Narbaizak ez al zigun esan Suitzara zihoazela?

MARIA LUISA

Hala esan zigun.

PATRIZIO

Ba... Plazan da!

MARIA LUISA

Eta nik zer dakit ba, planez aldatuko zuten!

PATRIZIO

Planez aldatu? Aizu, Maria Luisa, ez gera ba... gu izango oporretan joan geran bakarrek?

PATRIZIOk labea zabaltzen du. Bertan usoak erreta ikusten ditugu. Koñak botila bat zabaldu eta usoei txorro eder bat botatzen die.

PATRIZIO

Et, et, et...!

## 72. EGONGELA. BARRUA. EGUNA.

Uxoen bandeja hezurrez beteta dago. Familia guztia bazkaltzea bukatzen du.

PATRIZIO

Ño... "Kalekumeak" izateko ez zeuden batere txarrak.<sup>68</sup> (*Ardo kopatxoa mugituz.*) Gainera, ardo hauekin edozer gauza sartzen da ondo.

---

<sup>66</sup> Hasierako esaldi hau ezabatuta dago muntaian.

<sup>67</sup> Arrautze kaxak ez dira inon ikusten. Maria Luisak hasieratik labean dihardu, non uso pare bat erretzen daukan.

MARIA LUISA mahaia jasotzen hasten da.

PATRIZIO

Utzi, utzi. Nik jasoko det. Zeinek nahi du kafea?

MARIA LUISA

Ez da kaferik geratzen.

PATRIZIO

Zeinek nahi du mantzanila?<sup>69</sup>

Orain denak sofan eserita daude, PATRIZIOk mantzanila zerbitzaten du.

PATRIZIO

Mundu guztia oporretara joaten zelakoan eta denak bertan geratzen dira.

IÑAKI

Ez da lehen bezela. Orain jendea denbora gutxirako joaten da.

MARIA LUISA

Horiek ez dira oporrak. Herritik deskonektatzeko gutxienez hilabete behar da.

IÑAKI

Deskonektatu Marbellan? Egunero Rosakin kafea hartzeko geratzen zera eta. Nik Marbellan hilabete pasa baino, nahiago det astebete Indian edo Thailandian.

LUZIANO

Thailandian? Han ere txakurrak hankutsik.

MARIA LUISA

Aste betek ez du ezertarako ematen, joan orduko bueltan!

PATRIZIO

Joan, denek bagoazela ikus dezaten joaten gara eta bueltatu berriz, zer ondo pasa degun kontatzeko. Beste ezertarako ez dute balio oporrak!

LUZIANO

Oraintxe hasi haiz hi espabilatzen, Patrizio!

PATRIZIO

Egia esan, hain eguraldi ederra eginda, ez du inora joatea merezi.

MARIA LUISA

---

<sup>68</sup> Kalekume izenik ez, "labean erreta asko irabazten dute" dio Iñakik.

<sup>69</sup> Manzanila barik, pattarra eskaintzen du Patriziok. Segidan egongelan ikusten ditugu, pattarra edaten.

Patrizio mesedez eh, hemen ez dago ezer.

IÑAKI

Alkate irtetzen bazera erreka ondoan plaiatxo bat muntatu dezakezu.

PATRIZIO

Horixe bakarrik falta zaiguk herri honetan: plaia. Egia esan, tailerra itxi genuenetik erreka garbiago dago.

MARIA LUISA

Ta?

PATRIZIO

Bainatzeko leku bat jarri, udako aktibitate batzuk eta jendea bertan geratuko litzake.

MARIA LUISAri ez zaio batere gustatu ideia.

MARIA LUISA

Mesedez Patrizio, udan bakarrik ez pentsatu. Herri honetan egin behar den lehen gauza antzoki bat da.<sup>70</sup> Frontoian aktuatzea oso hotza da, ez akustikarik ez ezer. Horrela ez dago publikoarengana iristerik.

IÑAKI

Antzokia? Urtean behin "teatrilo" bat egiteko?

MARIA LUISA

Denetarako balio duen toki bat izan behar du. Antzerkia, zinea, kontzertuak...

PATRIZIO

Antzoki polibalentea!

MARIA LUISA

Ahí estás!<sup>71</sup>

IÑAKI

Tailerrean egin genezake. Imajinatu tailerra antzoki bihurtua.

PATRIZIO

Etxebeste Antzoki polibalentea.

Ixiltasuna egiten da, begiradak.

---

<sup>70</sup> Maria Luisaren elkarrizketa sarrera hau bertan amaitzen da.

<sup>71</sup> "Horixe" dio, euskaraz.

LUZIANO  
Bueno, bueno, bueno...

LUZIANO altxatu eta joan egiten da.<sup>72</sup>

### **73. PLAZA. KANPOA. ARRATSA.**

Jada jende gutxi dago plazan.

### **74. EGONGELA. BARRUA. ARRATSALDEA.**

PATRIZIO leihotik begiratzea utzi eta sofara zuzentzen da. MARIA LUISAren ondoan esertzen da.

PATRIZIO  
Zer egiten du jendeak igande arratsaldetan?

MARIA LUISA pentsakor geratzen da.

PATRIZIO  
Maria Luisa, egingo al degu... Zerbait?

MARIA LUISA  
Etxe honetan sartuta, zer nahi dezu egitea ba?

PATRIZIO  
Ez dakit ba... Zerbait egitea egongo da...

MARIA LUISA  
Mesedez, Patrizio.

PATRIZIO jaiki eta MARIA LUISA jasotzen saiatzen da.

PATRIZIO  
Bestela... Paseotxo bat edo...

MARIA LUISA  
(*Patrizio gainetik kenduaz.*) Utz nazazu Patrizio.

PATRIZIOk Maria Luisa heldu eta jaso egiten du.

PATRIZIO  
(*Emakumearen ahotsa imitatuz.*) Goazen neska, pasiotxo bat emango degu eta, hemendik, pasillotik.

---

<sup>72</sup> Altxatu beharrean, pattar kopari astindu egiten dio, aurreko etxetik klarinete doinua heltzen hastearekin batera. Segidan 66. sekuentzia dator azken muntaian.

MARIA LUISA  
Gero eta okerrago zaude.

Biak paseatzen ari dira pasillotik. PATRIZIO oso "femenino" ari da, esajeratuz. MARIA LUISA ere gustura.

PATRIZIO  
Uy neska, ba neretzat Baqueira Candanchú baino askoz hobeto zegon. A zer asteburua pasatu geninan joan ginen azken aldian. De lujo! Apartamentu bat alkatu zinan Patriziok, Jakuzzi eta guzti! Afaltzera berriz toki elagante batera eraman zidan. Eta afalostean, ayy Rosa, afalostean! a zer postrea eskeini zidan Patriziok, de cine!

#### **75. LUZIANOREN GELA. BARRUA.EGUNA.**

LUZIANO irakurtzen ari da ohean etzanda. Ducadosari azken zurrupada eman eta itzali egiten du. Paketean azken zigarro pareta geratzen zaio.

#### **76. IÑAKIREN GELA. BARRUA.GAUA.**

IÑAKIk peta bat pizten du. Leihotik begira erretzen hasten da.<sup>73</sup>

#### **77. PATIOA. KANPOA. GAUA.**

MAITE kalera irteteko prestatzen ari da bere gelako ispilu aurrean.

#### **78. PATRIZIOREN GELA. BARRUA. GAUA.**

MARIA LUISAk kamisoia janzten du ispilu aurrean. PATRIZIO prakak kentzen ari da.

PATRIZIO  
Oso ondo pasa det gaur. Egunero animatu beharko ginatke paseotxo bat ematera.

MARIA LUISA ohean sartzen da.

MARIA LUISA  
Zuk, beti pasa dezu ondo besteen kontura barre egiten.

PATRIZIO  
Lehen aldia da barre pixkat egiten deguna oportetan gaudenetik.

---

<sup>73</sup> Gainera, Iñaki Maiteri begira dago leihoan zehar, erretzen duen bitartean. Orduan Axun ateratzen da bere leihora, eta Iñakiren porroaren usaina nabaritzuz, usnan hasten da.

PATRIZIOk pelukina kendu eta ispilu aurrean uzten du.

MARIA LUISA  
(*Txantxetan.*) Zenbat aldiz esan behar dizut, argia itzalduta arte ez kentzeko pelukina?

PATRIZIO ohean sartzen da.

PATRIZIO  
Ikusten nola animatu geran?

MARIA LUISA  
Badakit bai, zertarako zauden zu animatua.

PATRIZIO Maria Luisaren gainean jartzen da eta zirri batzuk egiten hasten zaio. PATRIZIOk animala felino baten oihua egiten du. MARIA LUISAk barre egiten du.

MARIA LUISA  
Patrizio, mesedez, kendu zaitez gainetik... ez daukazula hemezortzi urte.

PATRIZIO  
Benga Maria Luisa, oporretan gaude eta.

MARIA LUISA  
Edozer gauzari deitzen diozu zuk oporrak.

PATRIZIO  
Auuuuu!

Badakit bai, zertarako zauden zu animatua.

## **79. ETXEA. BARRUA. EGUNA.**

PATRIZIO bere gelatik indartsu irteten da. Sukalderako bidean exerzizio batzuk egiten ditu. Sukaldean sartzen da. Bertan IÑAKI eta MARIA LUISA daude gosaltzen. PATRIZIO mahaian jartzen da.<sup>74</sup>

PATRIZIO  
Egunon.

MARIA LUISAk ur beroa sutatik atera eta Patrizioren aurrean ipintzen du. PATRIZIOk infusioz betea dagoen kaxa batetik bat aukeratzen du.

PATRIZIO  
Gaur tilatxo batekin hasiko degu eguna.

---

<sup>74</sup> Patrizio egongelara sartu eta pattar kopatxo bat ipinita, trago batez edaten du. Gero zuzenean hasten da “Zer egiten degu hemen?” elkarrizketara. Orduantxe ikusten ditugu besteak egongelan.

LUZIANO ere mahaian esertzen da.

PATRIZIO  
Zer egiten degu hemen?

Inork ez du ezer esaten. Denak nahiko txundituak daude, ez bait dute ezer ulertzen.

PATRIZIO  
(*Politiko baten modura.*) Zertara etorri gera? Oporretara. Disfrutatzen etorri gera. Aurten ezin izan gerala Marbellara joan? Zer egingo diogu! Baina ez degu ahaztu behar, oporretan gaude. Oporrak etxetik mugitu gabe pasa behar ditugula? Bale, baina inor baino hobeto.<sup>75</sup>

## 80. EGONGELA. BARRUA.EGUNA.<sup>76</sup>

Sukaldeko atea zabaltzen da eta PATRIZIO ikusten dugu, hondartzarako jantzia: Eguzkitako betaurrekoak eta Bisera batekin. Planoa zabaltzean bere eskuetan bandeja bat bi Martini eta "jildekin". PATRIZIO salaren erdira joaten da. Sala zeharo aldatua ikusten dugu: Toallak, Hamakatxoak, Area lurrean botata, Hondartza karibeño bateko argazki handi bat, Umeen igerilekutxoak, Sonbrila bat eta LUZIANOK egindako solariumtxoa: Bi ispilu, bat lurrean eta bestea sabaitik zintzilikatua, kaleko eguzkia errebotatzen gure hondartzatxora.

Han MARIA LUISA dago etzanda, bikinitan, hamakatxo absurdo baten gainean. Martinia hartu eta tragotxo bat ematen dio.

LUZIANOK ispiluak lotzen bukatzen du. IÑAKI, traje-bainutan, LUZIANORI laguntzen dio. PATRIZIO MARIA LUISAREN ondoan esertzen da.

LUZIANOK azken momentuan ispiluak jirutzen ditu. Bat-batean kristoren eguzkiak jotzen du hondartzatxoan.

PATRIZIO  
Joder Luziano, horrelako eguzki ederrik ez du Exenarrok inoiz hartu Sitxesen.

IÑAKI igerilekutxoan sartzen da. MARIA LUISA oso gustura dago, eguzkiaz disfrutatzen. Bat-batean jaiki egingo da. MARIA LUISA egongelatik irteten da. Segituan musika aparatutxo batekin dator. MARIA LUISAK aparatua hamaken ondoan entxfatu eta konpaktua ipintzen du. Itsasoko soinua entzuten hasten gara.

PATRIZIO  
Batek baino gehiagok pagatu egingo luke horrela egoteagatik.

---

<sup>75</sup> Azken esaldia: "Eta Etxebestetarrok inork baino hobeto pasa, deskantsatu eta disfrutatu behar degu".

<sup>76</sup> Zuzenean egongelako giro karibeñoarekin hasten da.

MARIA LUISA

“Relaxing music”. Artisanu ferian erosi nuen.

Itsasoa entzuten dugu. MARIA LUISA, hunkituta, soinuak disfrutatzen hasten da hamakan jartzen den bitartean. Biak gustura daude eguzkitan. Martiniak hartu eta topa egiten dute.<sup>77</sup>

PATRIZIO

Hauxe bakarrik falta zitzaigun.<sup>78</sup> Gu baino hobeto bizi dena putakume galanta!

MARIA LUISAk barre egiten du. PATRIZIO erlaxatu egiten da eta gustura akomodatzeko da hamakan. LUZIANOk ispiluei azken begirada ematen die, hauek ipintzeko erabili dituen materialen soberak eta erremintak hartu eta egongelatik irteten da. MARIA LUISA eta PATRIZIO eguzkia hartzen ikusten ditugu, gustura. IÑAKI plastikozko igerilekutik irten eta toalla batekin bilduta egongelatik irteten da. PATRIZIO eta MARIA LUISA eguzkitan geratzen dira.

PATRIZIO

Nola jotzen duen Marbellako eguzkiak!

PATRIZIOk Maria Luisa eskutik heldu eta jaikitza gongoratzen du.

PATRIZIO

Goazen gimnasia pixkat egitera, hor ur ertzean.<sup>79</sup>

MARIA LUISAk ez dio kasurik egiten. PATRIZIO egongelako izkina batera joan eta gimnasia egiten hasten da.

PATRIZIO

Benga, Maria Luisa!

MARIA LUISAk irribarretxo bat botatzen dio, baina ez da altxatzen.

## 81. TRASTEROA. BARRUA. EGUNA.

LUZIANO, bizikleta baten pedalekin zerbait prestatzen ari da, trastelekuan duen tornutxoan. IÑAKI leiho ondoan usoen tranpan dago, geldi-geldi, traje-bainutan.

IÑAKI

Zergatik ez zenuten tailerra saldu?

LUZIANO

---

<sup>77</sup> Ez dago martinirik ez topa egiterik.

<sup>78</sup> Ezabatuta dago hasierako esaldi hau.

<sup>79</sup> Honen ordean, Patriziok pala jokora gongoratzen du Maria Luisa, ur bazterrean. Biak zutitu, palak atera eta jokatzeko hasten dira.



Saldu? Iñaki, ahal izan ezkerro erosi egin behar dek, erosi. Dirua bankutan edukitzeak ez dik ezertarako balio. Tailerra geldik edukitzea bezelaxe. Iñaki, hik zer egingo huke tailerrarekin?

IÑAKI

Oraindik ez det karrera bukatu baina... Lehenengo merkatu azterketa tekniko bat egin beharko genuke...Eta ondoren... horren arabera definitu txapelekin jarraitu edo beste zeozerrekin hasi beharko genukeen.

LUZIANO

*(Zigarroa itxaltzen.)* Karrera bukatu eta berriz ere martxan jarriko diagu taillera.

IÑAKI

Shiiii...

Uxoak tranpan ondoan daude. Biak isil-isilik geratzen dira. Ia-ia lortu dituztenean PITXITXI katuak salto egin eta uxoak uxatzen ditu

LUZIANO

Katu puta hori! Hurrengoan... jata akatu egingo diat.

Tabako paketea hartu eta hutsik dagoela konturatzean eskuan tximurtu eta katuari botatzen dio.

## **82. EGONGELA. BARRUA. EGUNA.**

PATRIZIO eta MARIA LUISA hamaketan etzanda daude. PATRIZIO lo dago, izerditan. MARIA LUISA berriz errebistatxo batekin haizea hartzen du (abaniko modura).

Bat batean mobila dantzan hasten da Martinien artean. PATRIZIOk, erdi lo, mobila eskegi du.

PATRIZIO

Bai... Honbre zer moduz... Gu, primeran... Oraintxe pasako dizut...Maria Luisa, Rosa da.

Bat-batean MARIA LUISAk erreakzionatu egiten du.

MARIA LUISA

Rosa!

MARIA LUISAk mobilaren mikrofonoa tapatzen du bere gorputzarekin.

MARIA LUISA

Hemen dago.

PATRIZIO  
Hemen?

MARIA LUISA  
Hemen ez, Marbellan!

PATRIZIOk korrika bizian armairutik Larousse hiztegia ateratzen du.

MARIA LUISA  
Kaixo, Rosa... Zer moduz zabiltzate?

PATRIZIOk Larousse hiztegian mapa zabaltzen du.

PATRIZIO  
(*Baju-baju.*) Galdetu non dauden?

MARIA LUISA  
Non zaudete?... Esteponan bertan eh... Gu, plaian, erdi lo geratu gaitun... Euria egiten duela? Ez, ez, hemen ez...

PATRIZIOk Laroussean seinalatzen du behatzarekin.

MARIA LUISA  
Ez, ez gauden Marbellan, Almuñecarreraino etorri gaitun... Bai egunpasa... Ez zegon konparatzerik, hemen askoz jende gutxiago zebilen hondartzan... Bai, nik ere pena hartzen dinat eh... Bueno beste egunen batean... bai... bai... noski, oraindik denbora asko zeukanagu. Bueno Rosa muxu handi bat... Bai agur.

MARIA LUISAk sakelekoa itzaltzen du. Arnasa hartzen dute.

MARIA LUISA  
Joder, ia ia harrapatu gaitu.

PATRIZIO  
Lasai Maria Luisa. Oso ondo egin dezue. Gure gezurra horrelako detailtxoek bihurtuko dute egia.

PATRIZIOk Maria Luisari eskua sorbaldatik pasatzen dio. PATRIZIOk gorputza erreta sumatzen du.

PATRIZIO  
(*Erreak sufritzen.*) Ai, ai, ai,...

MARIA LUISA  
Baina, Patrizio... dena erreta zaude eta.

Ispilu batean eguzkia, gorri-gorri, sartzen ikusten da.

### 83. PATRIZIOREN GELA. BARRUA. GAUA.

PATRIZIO gorri-gorri ohean etzanda dago. MARIA LUISA krema ematen ari zaio.

PATRIZIO

Ai, ai, ai... Hotza dago krema hori.

MARIA LUISA

"Desde luego", gizonak ez dezue ezer aguantatzen.

PATRIZIO

Aitaren ixpilu puta horiek. Nik zer pentsatu behar nuen doble jotzen dutela. Ez dago errelajatzerik.

MARIA LUISAk krema emateri utzi eta ohean etzaten da. Gelako argia itzaltzen du.

PATRIZIO

Aai, aaaaii...

### 84. EGONGELA. BARRUA. EGUNA.

LUZIANO eta IÑAKI egongelan "abaniko" berezi bat kolokatzen ari dira. Polea sistema batez hamakaren aurrean dauden pedalei ematean alfonbra mugitu eta kristoren "brisa" egiten du. MARIA LUISA egongelan agertzen da.

MARIA LUISA

Egunon.

IÑAKI

Ama, etzan zaitez hamakan.

MARIA LUISA

Zer ari zarete?

IÑAKI

Etzan eta eman pedalei.

MARIA LUISA hamakan etzaten da. Oinekin pedalei eman eta "abanikoa" martxan ipintzen da. LUZIANOk azken toketxoa ematen dio abanikoari.

MARIA LUISA

Hau da brisa!

PATRIZIO bere gelatik irten da. Ez dauka oso aurpegi ona. Pijama gorputzetik separatzen ari da.<sup>80</sup> MARIA LUISA hamakan etzanda dago.

---

<sup>80</sup> Patriziok ez dauka aurpegi txarrik eta pijamaz barik lehengo tenis jantziez dago.

MARIA LUISA

Patrizio, gero eta hobeto egoten da hemen!

PATRIZIO

(Pijama gorputzetik separatuz.) Nahiko hondartza izan degu egun hauetan. Kasik hobe degu eskurtsioak egiten hastea.

IÑAKI

Eskurtsioak?

PATRIZIO

Bai. Herrikoek guk kontatzen diegun bakazioez hitzegino dute. Zer nahi degu gutaz entzutea?

Besteak isilik daude, aho zabalik.

PATRIZIO

Etxebestetarrok bizitzako oporrik onenak pasa ditugula. Argi eduki behar degu zer egin degun eta non egon geran, ezin gera dudatan ibili.

Denak aho zabalik utzi ditu berriro ere PATRIZIOk.

## **85. EGONGELA. BARRUA. ARRATSA.**

Aitona sofán lo dago. Bere ondoan IÑAKI. Aurrean PATRIZIO eta MARIA LUISA bakoitza siloi batean eserita.

PATRIZIOk motorraren soinua egiten du. MARIA LUISAk berriz esku artean Larousse hiztegia du.

PATRIZIO

Mijas.

MARIA LUISA

Akordatu, hemengo garrantzitsuena "Burro-taxi" a dela.

PATRIZIO

Aurten bakoitzak asto bat hartu eta karrera egin degu. Iñaki, zuk irabazi dezu. Nere astoa berriz ez da mugitu ere egin.

PATRIZIOk barre egiten du bere txistetxoaz. Planoa zabaltzean familia sofa eta silloietan jarrita dagoela ikusten ditugu. Kotxean joango balira bezala. LUZIANO lo. IÑAKIk aspertu aurpegia du. PATRIZIO pletoriko doa, berriz ere motorraren soinua eginez.

Kotxean gidatzeko pose ezin hobea darama PATRIZIOk. MARIA LUISA, berriz, oso atenta dago bere Laroussearekin. IÑAKI, atzeko asientoan, ez dago batere eroso, momentu batetik bestera salto egingo du. Aitona lo.

PATRIZIO  
Torremolinos.

MARIA LUISA  
Gazte jendearentzak leku egokia... ambiente ikusgarria.

PATRIZIO  
Bai, begiratu zenbat gazte jende. Diskoteka barra-barra dago.

IÑAKIk momentu egokia aurkitu du.

IÑAKI  
Aita, gelditu pixkat kotxea. (*Ironiko.*) Diskotekara noa.

PATRIZIOk frenatzeko keinua egiten du, baita MARIA LUISAk ere.

PATRIZIO  
Gazteak beti diskotekara!

IÑAKI "kotxetik atera" (sofatik altxa) eta bere gelako bidea hartzen du.

MARIA LUISA  
Patrizio, itxaron pixka bat.

MARIA LUISA "kotxetik irten" eta alde batera eta bestera begiratu ondoren Iñakiren gelako bidea hartzen du. PATRIZIO zai geratzen da. Aitona lo.

## 86. IÑAKIREN GELA. BARRUA.EGUNA.

IÑAKI bere gelan sartu eta atea itxi ondoren lehiotik begira jartzen da. MARIA LUISA gelan sartzen da.

MARIA LUISA  
Ondo al zaude?

IÑAKI  
(*Lehun-lehun.*) Bai. Gauza bat da, hemen sartuta egotea eta bestea aitari okurrizten zaizkion tontakeria guztiak egitea.

MARIA LUISA  
Ez horrela hartu, denbora pasatzeko modu bat da. Nik entsaio bat izango balitz bezela hartzen det.

IÑAKI

Ni ez naiz aktorea, ama. Pailazo bat bezela sentitu naiz, ez da ezer gehiago.

IÑAKIk amakin hitzegiten duen bitartean bonbardinoa hartzen du.

### **87. EGONGELA. BARRUA. EGUNA.**

PATRIZIO kotxean itxoiten den bezalako posturarekin itxaroten du. MARIA LUISA ez du ezer esaten bere eserlekuan jarri arte.

MARIA LUISA

Bere kasa ibiliko dela esan dit, urtero bezala.

PATRIZIO

Normala.

LUZIANOk momentu honetan begi bat zabaltzen du, jaiki eta zuzenean trasterora zuzentzen da.

MARIA LUISA

Paseotxo bat emango al degu?

PATRIZIO silloitik jaikitzen da.

### **88. IÑAKIREN GELA. BARRUA. EGUNA.**

IÑAKIk bonbardinoa garbitzen ari da.

### **89. PATIOA. KANPOA. EGUNA.**

MAITE bere gelan sartzean bonbardinoa uzten du. MAITE ilea lehortzen ari da toalla batekin. Ilea suelto uzten du. Leihoan agertu eta desagertu egiten da arropa janzten.

### **90. PASILLOA. BARRUA. EGUNA.**

PATRIZIOk jertsea sorbaldan du. MARIA LUISAk besotik heltzen dio PATRIZIOri. PATRIZIO "saludatzen" hasten da alde batera eta bestera(kalean izango balitz bezala), "irribarretsu".

PATRIZIO

Epa... Epa... Agur!

Biak pasillotik paseatzen jarraitzen dute besotik helduta. PATRIZIOk gero eta pailazoago ari da jendea agurtzen.

PATRIZIO

Beti bezela... Pailazoarena egiten.

MARIA LUISA

Benga Patrizio, ez zaitez hasi!

PATRIZIO

Hasi? Bizi guztia igual daramat. Eskiatzea modan dagoela? Ala, ekipo guztia erosi eta eskiatzera. Orain berriz, buzeatzea eramaten dela, ala bonbona eta fusilla hartu eta itsaskabrak harrapatzera! Armario guztia disfrazez beteta daukat eta. Beti itxurakerietan!

Ez daukat afiziorik. Hori bai, MAJOA, igandetan besotik heldu eta kalera: Epa... epa... Hombre...

LUZIANO trastelekutik azaltzen da.

LUZIANO

Shiii!

LUZIANO berriz ere desagertzen da.

PATRIZIO

Hara bestea! Ez dit sekula ezer erakutsi. Beti lana, lana eta lana. Horrela nola edukiko ditut nik afizioak? (*Pelukina kentzen.*) Si es que soy gilipollas! Zeini inporta zaio non ibili geran?

MARIA LUISAri ematen dio pelukina.

MARIA LUISA

Mesedez, Patrizio jar ezazu pelukina!

PATRIZIO

Ezetz Maria Luisa! Bukatu da paripe guztia.

PATRIZIO bere gelan sartzen da.

## **91. IÑAKIREN GELA. BARRUA. EGUNA.**

IÑAKIk liluraturik kieto dago begira.

## **92. PATIOA. KANPOA. EGUNA.**

MAITE dagoeneko jantzita dago. Bat batean MAITEk norbait begira balego bezala sumatu eta IÑAKIren gelara begiratzen du. IÑAKIk ez du erreakzionatzen eta elkar ikusten dute. Biak txunditurik geratzen dira.

IÑAKI leihotik apartatzen da. Ez daki zer egin. Berriz begiratzen du, ez dago MAITE.

### **93. IÑAKIREN GELA-PASILLOA-EGONGELA. BARRUA. EGUNA.**

IÑAKI gelatik irten eta inor ez dagoela ikusi ondoren egongelara joaten da. Kaleko ateko zuloxotik begiratu eta atea zabaltzen du.

### **94. DESKANSILLOA. BARRUA. ARRATSA.**

IÑAKIk behera begiratzen du. MAITE bere etxetik irteten da. IÑAKI Maiterengana inguratzen da eta ahoa tapatzen dio.

IÑAKI<sup>81</sup>  
Shiii...

MAITE  
Zer egiten dezu hemen?

IÑAKI  
Mesedez, ez inori esan hau, mesedez...

Biak aurpegiak gertu-gertu dituzte. Biak instintuz edo, musukatzen hasten dira, aspaldi espero zuten momentua balitz bezalaxe. Koadrotik ateratzen dira (Beherantz)

### **95. ETXEA. BARRUA. ARRATSA.**

PATRIZIO leihotik begira geratzen da. Bere aurpegia kristalean islatuta ikusten da.

MARIA LUISAk basura jasotzen du pasilloan. Iñakiren gelako atea jotzen du. Ez du inork erantzuten. Atea zabaldu eta ez dago inor.

LUZIANOK hautsontzitik hartutako kolillatxo bat pizten du. MARIA LUISA trastelekuan sartzen da.

MARIA LUISA  
Iñaki?

LUZIANOK ez daki ezer (hitz egin gabe).

PATRIZIO bere despatxuan bueltak ematen ari da. MARIA LUISA sartzen da.

MARIA LUISA  
Iñaki falta da!

---

<sup>81</sup> Elkarrizketak deuseztatuta daude, hauen ordez 41. sekuentziako OFF-ekoak entzuten dira.



PATRIZIO  
Nola falta?

MARIA LUISA  
Etxe guztia miatu dut, ez da inon ageri.

Biak arrapaladan egongelara doaz. LUZIANO ere bertan dago.

Bat batean ateko zarata entzuten da. Denak sukaldean ezkututzen dira. IÑAKI etxean sartzen da, kontentu. Zerbait dakar magalean.

PATRIZIO  
Non ibili haiz?

MARIA LUISA  
Ez zintuen inork ikusiko, ezta?

IÑAKIk ezkutuan dakarrena erakusten die: Urdaiazpikoa, arpoi eta guzti. LUZIANOk urdaiazpikoa ikustean alde egiten du.

IÑAKI  
Lasai, dena kontrolatua daukat.

PATRIZIO<sup>82</sup>  
(*Serio.*) Ez du merezi Iñaki. Janari pixka bategatik ezin dugu plana arriskuan jarri.

MARIA LUISA  
Zailena pasa degu. Astebete bakarrik geratzen da.

IÑAKIk ez dio begia kentzen Patrizioen buruari. LUZIANO agertzen da kutxilo handi bat eta soportearekin, Urdaiazpikoa mozten hasten da.

PATRIZIO  
Zer ari haiz begira? Pelukina kendu diat... Ez al hekien...?

IÑAKI  
Nola ez det jakingo ba, herri guztiak daki eta.

PATRIZIO  
Mekauen dios! Si es que soy gilipollas!

PATRIZIOk alde egiten du.

Denak jaten hasten dira. PATRIZIO Botila ardoa eta basoekin azaltzen da. Laurak gustura jaten dute.

---

<sup>82</sup> Hau Maria Luisak esaten du

LUZIANO, nahiko jan ondoren, Iñakirengana inguratzen da.

LUZIANO  
Iñaki, ez huen tabakorik ekarriko?

IÑAKI  
Ez.

LUZIANO  
Orain zigarrotxo bat... Gustora erreko nitek.

IÑAKI une batez pentsakor geratzen da.

IÑAKI  
(*Dudatan.*) Nik ba ditut hor... belar batzuk...

## 96. EGONGELA. BARRUA. GAUA.

LUZIANO eta IÑAKI hamaketan etzanda daude. IÑAKIk peta pasatzen dio Luzianori pizteko. Honek zurrupada galanta eman ondoren eztulka hasten da.

LUZIANO  
Joder motel. Hau, gure garaiko artobixarren aldean, gogorra dek.

## 97. PATRIZIOREN GELA. BARRUA. GAUA.

Patrizio eta Maria Luisa ohean sartuta daude. Egongelako barreak entzuten dira.

PATRIZIO  
Zer moduz zaude Maria Luisa?

MARIA LUISA  
Ondo. Hauek biak ere ondo daude.

PATRIZIO<sup>83</sup>  
Bai, bizitza uste baino sinpleagoa da, guk konplikatzen degu. Ez daukaguna nahi degu beti. Hemen gaude, "hechos unos desgraciados" eta inoiz baino biziago sentitzen naiz.

MARIA LUISA  
Inoiz ez zenidan galdetu zer moduz nagoen!

## 98. EGONGELA. BARRUA. GAUA.

---

<sup>83</sup> Elkarrizketa hau, partez Maria Luisak esaten du.

LUZIANO eta IÑAKI hamakatxotan etzanda, irriabartsu, erdi tontotuak.

LUZIANO  
(*Sabela ukitzen.*) Hau dek gosea, hau!

IÑAKIk ezin dio barreari eutsi. LUZIANO hamakatik altxa eta urdaiazpikoa mozten hasten da.

LUZIANO  
Iñaki... egintzak beste bat. (*Barrezka.*)

## 99. TRASTEROA. BARRUA. EGUNA.

PATRIZIO eta IÑAKI ehizan daude.

PATRIZIO  
Hau dek beroa, hau.

IÑAKI  
Pentsatu al dezu zer egin, bueltatzen geranean?

PATRIZIO  
Zer egin? Orain egiten ari gerana.

IÑAKI  
Etxe barruan diru gabe egotea gauza bat da, baina kalean...?

PATRIZIO  
Kalean errazagoa dek motel. Hik ba al dakik zenbat jende ibiltzen den kalean diru gabe? Ba al dakik zer egiten duen nere koadrilako Julianek, karnizeroak? Ez diat sekula ikusi ronda bat pagatzen. Dirua atera, ateratzen dik, baina goma bat balu bezalaxe... XAST... segituan sartzen dik poltsikoan.<sup>84</sup> (*Erlojua begiratzen.*) Harritzekoa! Aitona oraindik ez dek jeiki.

IÑAKI  
Shiiii!

Pare bat uso ogi apurrak jaten ari dira. Justu tranpa azpira inguratzen ari dira. PATRIZIO sokarekin oso atento dago. Justu PATRIZIOk sokatik tira egitera doan momentuan PITXITXIk salto egin eta usoak hegan doaz.

PATRIZIO

---

<sup>84</sup> Elkarrizketa sarrera hau bertan amaitzen da. Segidan Pitxitxi katua harrapatzen dute eta hortxe amaitzen da sekuentzia.

Katu puta!

PITXITXI tranpan harrapatuta geratu da. PATRIZIO katuarengana inguratzen da. PATRIZIOk ez dio katuari ihes egiten uzten.

IÑAKI  
Baina, zer egiten dezu? Uztazu pakean, aita.

PATRIZIO  
Deitu aitonari.

### **100. LUZIANOREN GELA. BARRUA. EGUNA.**

IÑAKI gelan sartzen da. LUZIANO lo dago, ez du erantzuten.

IÑAKI  
Esnatu aitona, esnatu!

IÑAKIk kolpetxo batzuk ematen dizkio. Ez da mugitzen. Azkenean bertan duen basoka bat ardo botatzen dio. Orduan hasten da esnatzen.

IÑAKI  
Esnatu, Pitxitxi harrapatu degu.

LUZIANO  
(*Esnatzen.*) Pitxitxi!

LUZIANO azkar jaikitzen da.

### **101. TRASTEROA. BARRUA. EGUNA.**

PATRIZIO katuarekin burrukan ari da, ahalik eta zarata gutxien ateratzen saiatzen. LUZIANO eta IÑAKI arrapaladan sartzen dira.

LUZIANO  
Pasaidak mailua!

IÑAKIk mailua pasatzen dio. LUZIANOk Patrizio paretik kendu eta mailukarekin kolpe bat ematen dio katuari.

### **102. SUKALDEA. BARRUA. EGUNA.**

LUZIANOk labea piztu eta katua, azalik gabe, bandeja gainean prestatzen du. IÑAKIk, tarteka, leihotik begiratzen du.

IÑAKI  
Ona egongo al da?

LUZIANO

Konejua baino goxoagoa. Gerra ostean ez huan kalean katu bat bera ere ikusten.

Axun Joxepikin hitz egiten du.

AXUN (OFF)

Joxepiiii! Pitxitxi ikusi al den?

JOXEPI (OFF)

Zer?

AXUN (OFF)

Pitxitxi! Ez zekinat non sartu den. Janaria hemen zeukan ikutu gabe...

### **103. EGONGELA. BARRUA. EGUNA.**

PATRIZIO egongelan mahaia ipintzen ari da.<sup>85</sup>

PATRIZIO

Iñaki!

MARIA LUISA inguratzen zaio.

MARIA LUISA

Nola jango degu Pitxitxi gaixua? Txikitatik ezagutzen degu eta.

PATRIZIO

Hobe horrela. Ba dakigu ondo hazitakoa dela.

MARIA LUISA

Ondo hazitakoa? Egun guztia pentsu zikin hori jaten?<sup>86</sup>

### **104. IÑAKIREN GELA. BARRUA. EGUNA.**

IÑAKIk paper bat eta boligrafo bat hartu eta nota bat idazten du: GAUR, GAUEKO 12.00TAN, GANBARAN?

---

<sup>85</sup> Kanpingeko mahai tolesgarria da. Maria Luisa mantela ateratzen hasten da.

<sup>86</sup> Amaieran, Patrziok ezin duela eta mahaia muntatu, nork erosi duen galdetzen du, eta argibiderik ez dakarrela. Maria Luisak, ezer esan gabe, mahaia muntatzeari ekiten dio.

IÑAKIk paperarekin hegazkin bat egin eta leihotik botatzen du, MAITEren leihotik sartzen da.

### **105. PATIOA. KANPOA. EGUNA.**

MAITEk notatxoa irakurri eta keinu irribarretxo batez baiezkoa ematen dio Iñakiri.

### **106. EGONGELA. BARRUA. EGUNA.**

Katua bandeja batean, kea dariola, mahaiaren erdian. Aldamenean urdaiazpikoa.

PATRIZIO bi ardo botilarekin inguratzen da.

IÑAKI  
Itxura ederra dauka.

Denak mahaiaren eseri dira. LUZIANOK katua zatitu du dagoeneko eta plateretan banatzen ari da. MARIA LUISArena da azken platera.

LUZIANO  
Maria Luisa, seguru zaude ez dezula probatu nahi?

MARIA LUISA  
Bueno, ateraidazu zati txiki bat.

LUZIANOK zatitxo bat zerbitzatzeko dio MARIA LUISARI. PATRIZIO jaiki eta kopa jasotzen du, topa egiteko.

PATRIZIO  
Gugatik... Etxebestetarrongatik... (*Luzianori begira.*) Baginen (*Maria luisari begira*), Bagera (*Iñakiri begira*) eta izango gera.

Denak topa egin ondoren, tragoxka edaten dute.

Tinbrea entzuten da. Denak atera begiratzen dute. Isilik. Beste tinbre hotsa. Beraien artean begiratzen dira. Giltza hotsa entzuten da.

LUZIANO  
Goazen... nere gelara.

PATRIZIOk keinuekin gordetzeko esaten die. Denak LUZIANOren gelara sartzen dira, Sarrerako atea zabaltzen da. Etxean bi gizon (LAPURRAK) sartzen dira. LAPURRAK aluzinatu egiten dute etxearen itxuragatik, mahaia ipinita ikustean bietako batek joateko seinalea egiten dio besteari, besteak atea itxi eta pestiltoa jartzen du.

PATRIZIO atetik begira geratzen da, besteak atzean.

LAPURRAK aurrera egin ahala Familia atetik aldentzen da.

LAPURRA 1 pasillotik aurrera doa. Beste LAPURRA 2 poliki-poliki ederki apainduta dagoen mahaira inguratzen da, ardo kopa bat hartu, usaindu eta probatu egiten du, kristorena! Animatu eta jaten hasten da. Emozionatu egiten da eta torpe-torpe zaratatxo bat atera du. LAPURRA 1 pasillotik bueltan dator. LAPURRA 2ri keinuekin zer ari den galdetzen dio, nahiko moskeatua... LAPURRA 2k barkatzeko eskatzen dio keinuekin eta ardoa probatzera gonbidatzen du. LAPURRA 1ek keinuekin ez duela erremediorik adierazten dio.

Familia Luzianoren gelan sartuta oso tentsu dago. PATRIZIOk atea zabaldu eta kilikatzen du. Atzetik LUZIANO agertzen da.

LAPURRA 2 katuaren hezurrei distira ateratzen ari zaie. LAPURRA 1 berriz gela ezberdinak "a sako" arakatzen. LAPURRA 2-k basoa hutsik dauka eta pixka bat urrintxo geratzen zaion beste botila hartzekotan jaiki egiten da. Bere aulkia lurrera doa.

#### **107. PATIOA. KANPOA. EGUNA.**

AXUN bere etxeko leihoan dago, Etxebestetarren etxera begiratzen du.

LAPURRA 1ek LAPURRA 2ri keinuekin errieta bota dio. LAPURRA 2k barkamena eskatu eta ardo botila hartu eta jaten jarraitzen du.

LAPURRA 1 poliki-poliki Luzianoren gelara zuzentzen da. PATRIZIOk atzeraka gordetzeko adierazten dio familiari. Denak armairuan sartzen dira. PATRIZIO armairuko atea ixten du. Zirrikitu batetik, lapurra egiten duena ikusten dute. LAPURRA 1ek koltxoia altxa eta ohe azpian dagoen maleta ikusten du. Maleta hartu eta giltzarrapoa puskatu ondoren zabaldu egiten du: DIRUA.

LUZIANOK zerbait egin nahi du. PATRIZIOk eutsi egiten dio, ahoa tapatuz. Denak heltzen dute LUZIANO.

#### **108. DESKANSILLOA. BARRUA. EGUNA.**

AXUN bere etxetik irten, eta zuzenean Etxebestetarren ateko tinbrea jotzen du.

PATRIZIORi tinbre hotsak mina egiten dio. LAPURRAK paralizatuak geratu dira.

LAPURRA 2  
Miauuuu!

#### **109. DESKANSILLOA. BARRUA. EGUNA.<sup>87</sup>**

---

<sup>87</sup> Sekuentzia hau hurrengoarekin paraleloan muntatuta dago.

AXUNek belarria atean dauka ipinia.

AXUN  
(*Oihuka.*) Zein dabil hor? Zein dabil hor?

Ukabilekin atea jo du. MAITE agertzen da.

MAITE  
Zer gertatzen da?

AXUN  
Lapurrak daude hor barruan.

MAITE  
Mesedez Axun. Seguru al zaude?

AXUN  
Seguru-seguru. Zuk itxoin hemen, munizipalei deituko diet.

MAITE  
(*Belarria atean ipinita.*) Nik ez det ezer entzuten.

#### **110. ETXEA. BARRUA. EGUNA.**

LAPURRA 1ek diruaren maleta hartu eta gelatik irteten dira.

PATRIZIO armairutik irteten da. Isilik pasilloko izkinatik kilikatzen du. Poliki-poliki trastelekura zuzentzen da, bere atzetik goaz. Trastelekuko ate ondora inguratzean kontu handiz begiratzen du barrura.

Gela argituta ikusten dugu. PATRIZIO kontu handiz, baina mugimendu azkarrez leihora inguratzen da. PATRIZIOk leihoa itxi du mugimendu azkar batez.

#### **111. PLAZA. KANPOA. EGUNA.**

IÑAKIk BI MUNIZIPAL Udaletxeko arkupeetatik korrika irteten ikusten ditu.

IÑAKI  
Munizipalak datoz.

PATRIZIO leihora inguratzen da.

MARIA LUISA urduri, egongela txukuntzen hasten da.

#### **112. DESKANTSILLOA. BARRUA. EGUNA.**



MUNIZIPALAK Etxebestetarren ate aurrean, tinbrea jotzen, daude. MUNIZIPALA 1 belarria atean ipini du. AXUN, MAITE eta auzoko beste batzuk ere bertan dira.

AXUN

Hilabete osoa daramat etxe horretan zaratak entzuten.

MUNIZIPALA 1

Axun, seguru al zaude?

AXUN

Hor barruan norbait dago, seguru.

MUNIZIPALAK, berriz ere, tinbrea jotzen dute.

MAITE

Honbre, seguru-seguru, Axun...

MUNIZIPALA 1

Axun, etxe baten sartzeko seguru egon behar degu.

AXUN

Horixe seguru nagoela!

JOXEPI azaltzen da goiko eskaileretatik.

JOXEPI

Zer gertatzen da?

AXUN

Joxepi, zuk ere entzun dituzu zaratak, ezta?

JOXEPI

Zer?

### **113. ETXEA. BARRUA. EGUNA.**<sup>88</sup>

PATRIZIO ateko zuloxotik begira dago. MARIA LUISAK egongela jasotzen jarraitzen du. PATRIZIOk katetxoa ipintzen dio ateari.

PATRIZIO

Uztazu hori, Maria Luisa. Goazen hemendik!

MARIA LUISA

Nora? Oraintxe iritsi gerala esango diegu.

PATRIZIO

---

<sup>88</sup> Sekuentzia hau, hurrengoaren hasierarekin paraleloan ere badoana, laburtuta dago: bakarrik Patrizio zuloxotik begira, eta segidan senitarte guztien ihesaldi zaratatsua.

(Besotik eramaten.) Benga goazen.

Kolpetxo bat ematen diote lapurrak eman zion gauza berdinari.

#### **114. DESKANSILLOA. BARRUA. EGUNA.**

Etxe barruan zaratak entzun dituzte. MUNIZIPALAk atea zabaldu nahian ari dira.

AXUN  
Ikusten! Benga, azkar.

MUNIZIPALA 1  
Tira Martin, sartu egingo gaituk, ekarri maestra!

AUZOKO EMAKUMEA  
Mugitu zaitetze... alde egingo dute.

AUZOKO GIZONA  
Inutilak!

#### **115. TRASTEROA. BARRUA. EGUNA.**

Denak trastelekuan daude. PATRIZIOk balkoia zabaltzen du.

#### **116. TRASTEROKO BALKOIA. KANPOA. EGUNA.**

Denak balkoira pasatzen dira.

IÑAKI  
Ostras! Bonbardinoa!

PATRIZIO<sup>89</sup>  
Pelukina!

#### **117. EGONGELA. BARRUA. EGUNA.**

PATRIZIO sarrerako armairutxora zuzentzen da. Pelukina eta mobila hartzen ditu. Justu momentu horretan atea zabaltzen da kateak tope egin arte. AXUN eta MAITEK PATRIZIO ikusten dute.

AXUN  
Ahhhhhhh!

PATRIZIOk atea kolpe batez itxi du.

---

<sup>89</sup> Hau Maria Luisak dio.

### 118. DESKANSILLOA. BARRUA. EGUNA.

Urduritasuna nabari da. MUNICIPALA 1 atea zabaldu nahian ari da berriro.

AXUN  
Patrizio da!

MAITE  
Patrizio? Zer diozu? Nik burusoil bat ikusi det.

AXUN  
Bai, bai, burusoila zen, baina Patrizio iruditu zait.

MUNICIPALA 2  
Patrizio burusoila al da?

JOXEPI  
Burusoil burusoila ez baina...

AUZOKO GIZONA  
Utzi burusoilak pakean eta bota ezazue ate hori behingoz!  
Inutilak!

MUNICIPALAK zabaldu dute dagoeneko atea.

MUNICIPALA 1  
Ez dezala inork ezer ikutu.

MUNICIPALAK etxean sartzen dira. Atzetik, auzokideak atean geratzen dira barrura begira, pixka bat beldurrez.

### 119. ALDAMENEO SOLARRA. KANPOA. EGUNA.<sup>90</sup>

PATRIZIO ETA IÑAKIk balkoitik salto egiten dute eta orubeko horma atzean Maria Luisa eta Luzianorekin juntatzen dira. PATRIZIOk pelukina janzten du. IÑAKI horma gainera igo eta begiratu egiten du.

IÑAKI  
(*Beste aldeko horma seinalatuaz.*) Jendez betetzen ari da plaza, goazen handik!

Denak beste aldera doaz korrika.

### 120. ETXEA. BARRUA. EGUNA.

---

<sup>90</sup> Etxebestetarren ekintzak 119, 121 eta 123. sekuentzietan pixka bat ordenaz aldatuta daude.

MUNIZIPALAK kontu handiz pasillotik barrenera doaz. Auzokoak euren atzetik dena begiratzen. MUNIZIPALAK trastelekura iritsi dira, balkoia zabalik dago.

### **121. ALDAMENeko SOLARRA. KANPOA. EGUNA.**

IÑAKIk horma saltatzen du. LUZIANO, MARIA LUISA eta PATRIZIO (pelukina jantzita) beste aldean daude, paretari pega-pega eginda.

Balkoian MUNIZIPALA 1 ikusten dugu.

### **122. TRASTEROA. BARRUA. EGUNA.**

MUNIZIPALAK balkoira irten dira, ez dute inor ikusten ez teilatuetan ezta baratzetan ere.

MUNIZIPALA 1  
Inork ez dezala ezer ukitu. Martin, hau ez dek gure ardura.  
Deitu Ertzainei.

MUNIZIPALAK etxe barrenera zuzentzen dira. Katuaren azala zintzilik ikusten dute.

MUNIZIPALA 1  
(Azala ukitzen du.) Eta hau?

AXUN Pitxitxiren azala dela konturatzen da.

AXUN  
(Oihuka.) Pitxitxi!!!

### **123. KALEA. KANPOA. EGUNA.**

Etxebestetarrak kaleka batetik gora doaz, ez dago inor inguruan. Kaleka bukatu eta kale handiago batetara iristen dira. IÑAKI doa aurretik, kalera begiratzen du, justu Ertzainen kotxe bat dator sirena eta argiak ipinia. Ezkutatu egiten dira denak.

Aurrera jarraitzen dute. Gurutze batera iristen dira. Justu eliza euren parean dago. PATRIZIOk burua atera eta kalean inor dagoen begiratzen du. Pelukina kendu eta lasai-lasai zeharkatzen du kalea. Elizako atetik, beste, bidea libre dagoela adierazten die. Denak korrika elizan sartzen dira.

### **124. ELIZAKO ESKILARAK. BARRUA. EGUNA.**

IÑAKI kanpandorrerako eskailerak igotzen hasten da. Goitik ahotsak eta pauso hotsak entzuten dituzte. IÑAKIk buelta eman eta besteei atzera egiteko adierazten die. Ez dakite non sartu.

Eskaileratetik behera BALIN, XOLOMO eta PIKITA korrika datoz. Atetik irteten dira.

ETXEBESTEtarrak ate atzean gorde direla ikusten dugu. Azkar-azkar kanpandorrera zuzentzen dira.

## 125. KANPANDORREA. KANPOA. EGUNA.

ETXEBESTEtarrak arnasestuka iritsi dira goraino.

MARIA LUISA

Miserablea! Hilabete osoa miseriak pasatzen maletan dirutza hori edukita...

LUZIANO

Diru hori Iñakik tailerra berriro martxan ipintzeko neukan gordeta.

IÑAKI

Zergatik ez dituzue zuen artekoak konpontzen ni pakean utzita?

Isiltasuna.

IÑAKI

Hiru urte badira enpresariales utzi nuela.

MARIA LUISA

Zer?

IÑAKI

Numeroak ez zaizkit sekula gustatu, baina hori zuei berdin zaizue. Zuen "iñakitxo" enpresarioa izatea nahi zenuten. Inoiz ez didazue galdetu zer egin nahi dedan. Nik nere bidea egin behar det. Musika gustatzen zait eta musikaria izango naiz.

Denak lur jota utzi ditu IÑAKIk. IÑAKI pixka bat aldentzen da. Beste hirurak diskutitzen jarraitzen dute

MARIA LUISA

*(Patrizziori.)* Zer, ez al diozu ezer esan behar?

PATRIZIO

Zer nahi dezu esatea? Ez al zera konturatzen? Azkenean, egiak esaten hasi gera. Hori da inportanteena.

PATRIZIOk saltotxo bat ematen du.

PATRIZIO  
Hostia!

MARIA LUISA  
Zer gertatzen da?

PATRIZIO  
Bibradore hostia hau! (*Mobila atera eta zein den begiratzan du.*) Exenarro da.

Denak Patriziori begira daude. PATRIZIOk plazara begiratzan du.

## 126. PLAZA. KANPOA. EGUNA.

EXENARRO portaletik irteten ikusten dugu, mobila belarrian darama, Ximonen garabi ondora inguratzen da. BALIN, XOLOMO eta PIKITA ere bertara inguratzen ikusten ditugu.

PATRIZIOk deia hartu du.

PATRIZIO  
Aupa Exenarro! Zer moduz Sitges aldean?

EXENARRO  
Ondo, ondo. Herrian negok dagoeneko. Kanpaina prestatzera etorri nauk.

PATRIZIO  
Hasi al zerate kartelak ipintzen?

EXENARRO  
(*Grua gainean dauden kartelak ikutzen.*) Oraintxe bertan hartu dizkiagu inprentatik. (*Buelta eman eta Etxebestetarren balkoia seinalatzen du.*) Kriston pankarta ipini diagu hire etxeko balkoian, ikusiko dek, kristona. (*Berrito buelta ematen du.*) Non hago?

Kanpandorrean denek burua makurtzen dute.

PATRIZIO  
Non egongo naiz ba?

EXENARRO  
Horixe bera esan zieat nik. Kristona montatu dek hemen. Lapur batzuk egon omen dituk hire etxean bizitzen.

PATRIZIO

Zer?

EXENARRO

*(Berrito giratu egiten da, ertzainen kotxea seinatzen du.)*  
Hori uste ditek Ertzainek, Axun berriz, hi ikusi hauela esaten ari dek.

PATRIZIO

Ni ikusi?

EXENARRO

Hi trankil egon hadi, badakik nolakoa den Axun.

PATRIZIO

Baina, zer gertatu da Exenarro?

EXENARRO

Hi egon hadi lasai, ni enkargatuko nauk denaz. Hik deskantsatu eta txupinazo egunean hemen ikusi nahi haut, eh? Akordatu hadi, inportante! Look-a! Ez ahaztu!<sup>91</sup>

PATRIZIOk mobila pixka bat aldentzen du. Antzerki pixka bat egiten.

PATRIZIO

Lasai Maria Luisa, orain kontatuko dizut.

EXENARRO

Esan Maria Luisari lasai egoteko, ez dela ezer gertatu. Hau ondo etorriko zaiguk.

PATRIZIO

Zer esaten ari haiz?

EXENARRO

Kanpaina egingo dugula honekin...

PATRIZIO

Kanpaia?

EXENARRO

Kanpaia ez, Kan-pa-ina! Hi lasai!

PATRIZIO

Bale, bale....Benga, bueltara arte orduan.

PATRIZIOk mobila eskegi eta petrilean uzten du. Denek arnasa hartzen dute.

PATRIZIO

Axunek ikusi egin nau.

---

<sup>91</sup> Hemen agur esaten diote elkarri hurrengo elkarrizketa zatia moztuta geratzen delarik.

IÑAKI<sup>92</sup>

Herri guztiak daki nolakoa den Axun. Inork ez dio sinistuko.  
Gainera pelukinik gabe zinan.

Bibragailua aktibatu egin da berriro.

MARIA LUISA

Itzali ezazu mobil hori mesedez!

PATRIZIOk mobila itzaltzen du. Justu Patrzioren ondoan kanpaiak jo du.

PATRIZIO

*(Belarria helduz.)* Mekauen..!

Denek hartu dute susto txiki bat.

### **127. KANPANDORREA. KANPOA. GAUA.**

Aurreko kanpai hotsa beste hirurekin juntatzen da. Kanpandorreko erlojuan hirurak dira.

### **128. ERREKA-TAILERRA. KANPOA. GAUA.**

ETXEBESTEtarrak horma batetik salto egin ondoren erreka iristen dira. Errekan ura belaunetaraino dutela aurrera doaz. Tailerreko leiho apurtu batetara iristen dira, denak barrura sartzen dira.

### **129. TAILERRA. BARRUA. EGUNA.**<sup>93</sup>

LUZIANO makina tartean eserita dago. IÑAKI inguratzen zaio.

IÑAKI

Egunon aitona!

LUZIANO

Etorri nerekin.

Tailerreko goialdera zuzentzen dira. Bertan armairu baten barruan dagoen maleta bat hartu eta Iñakiri ematen dio.

IÑAKI

Zer da?

---

<sup>92</sup> Maria Luisak dio hau, Iñaki ez baitago bertan.

<sup>93</sup> Sekuentzia honen parteak ordena ezberdinean daude: lehenik, jubilatzeke orduan heldu zaiola dio, gero beste gela batera eraman eta han klarinete zaharra ematen dio Luzianok Iñakiri. Amaitzeko, Patrizio eta Maria Luisa esnatu egiten dira.



LUZIANOK Ez du erantzuten. Iñakik zabaldu egiten du. Barruan klarinete zahar bat dago.

LUZIANO

Lanean hasi eta utzi egin behar izan nioan.

IÑAKI

Jo ezazu pixkat...

LUZIANO

Ez, ez, horretan hi haiz iaioa...

PATRIZIO eta MARIA LUISA bulegoko sofan lo daude. PATRIZIO esnatu egiten da. MARIA LUISA goxo-goxo esnatzen du. Ondo lo egindako aurpegia dute biek.

MARIA LUISA

Zer ordu da?

PATRIZIO

*(Erlojua begiratzuz.)* Ordubata eta erdiak. Ez dakit zer daukan sofa honek baina hemen etzaten naizen bakoitzean, adios!

PATRIZIO jaiki eta bulegotik irteten da. LUZIANO eta IÑAKI ofizinako balkoitik tailerrari begira daude. LUZIANOK bi eskuak barandaila gainean ditu, Nagusien antzera.

LUZIANO

Ikusi egin behar huen nolako mugimendua izaten zen hemen. Orain berriz... txapela ez dik inork erabiltzen...

PATRIZIO inguratzen zaie.

PATRIZIO

Egunon Aita! Egunon Iñaki!

LUZIANO

Berdin, bai, egunon. Patrizio, jubilatzeke ordua iritsi zaidala uste diat.

Denak txundituta eta kontentu uzten ditu Luzianoren erabaki berriak.

### **130. TAILLERRA. BARRUA. EGUNA.**

Kalean Patrizioren aurpegiaren gainean "Aupa Etxebeste!" ipintzen duen kartel pilo bat ikusten ditugu.

PATRIZIO, LUZIANO, IÑAKI eta MARIA LUISA leihotik kartelak begiratzen ikusten ditugu.

IÑAKI

Joder, Exenarro hau la hostia da!

### **131. TAILER-KALEA. KANPOA. EGUNA.**<sup>94</sup>

Ahotsak entzuten dira kanpoan. Pelikula hasieran ikusi ditugun bi ATSOAK eta GIZON bat euren aurrean geratu eta hizketan hasten dira.

ATSOA 1

Mesedez. Haiek Marbellan daude, ederki asko. Exenarrokekin hitzegin zuten eta eguzkia hartzen ari ziren.

GIZONA

Gertautakoaren ondoren, oraindik herrian ez agertzea oso arraroa da.

ATSOA 2

Begira, nik ez dakit ezer, baina guzti hau oso arraroa da. Atzo lapurren kontu hori, gaur kalera irten eta Patrizioaren aurpegia alde guztietan, nere ustez hau dena Exenarrok antolatu du.

ATSOA 1

Mesedez! Horrek ez dauka guzti hau antolatzeko kapazidaderik. Lapurrek Patrizioaren etxean hilabete pasa dute...

ATSOA 2

Ez dira toki txarrera joan.

GIZONA

Hemen argi dagoen bakarra, Axunen katua jan egin dutela. Hori da egia bakarra.

ATSOA 1

Mesedez, entzuten dudan bakoitzean tripak nahasten zaizkit.

ETXEBESTEtarrak barrez hasten dira.

### **132. TAILERRA. BARRUA. GAUA.**

Tailerreko plano orokor bat ikusten dugu. Antzoki baten antza ematen du.

---

<sup>94</sup> Kanpoan eta barruan gertatzen da. Patrziok Maria Luisari dei egiten dio leihora hurbil dadin.

PATRIZIO, LUZIANO, eta IÑAKI eszenario antzeko taula baten gainean daude, MARIA LUISA beraien aurrean Zuzendaria balitz bezala. Aurrean makinak dituzte, antzerki bateko aulkiak izango balira bezala.

MARIA LUISA<sup>95</sup>

Txupinazo egunean herri guztiak ikusi behar gaitu herrira iristen. Goazen herri honi sekula sartu dioten ziririk handiena sartzera...

### **133. TAILER-KALEA. KANPOA. GAUA.**

Tailerra kanpotik ikusten dugu. Antzoki bateko fatxada dirudi.

Ate handia zabaltzen da. IÑAKIk burua ateratzen du. Kalea hutsik dago. IÑAKIk atea azkar zabaltzen du eta irteteko adierazten die. Kotxea ateratzen da. IÑAKIk atea itxi eta kotxean sartzen da. Kotxea kalean behera doa.<sup>96</sup>

Kotxea kale nagusian aurrera doa. Kanpainako kartekez josita dago. ETXEBESTETArrak, kotxe barruan, alde batera eta bestera begira doaz. Patrizioaren aurpegia besterik ez dute ikusten alde guztietan. Denak isilik. Kotxeak kale nagusitik jarraitzen du, beltzean galdu arte.

**BELTZERA**

### **134. IBAIA. KANPOA. EGUNARGITZEN.**

MARIA LUISA bainatzen ari da ibaian. PATRIZIOk arropak kendu eta MARIA LUISAren gana zuzentzen da. Biak igeri egiten gustura dabilta. Derrepente lasaitasuna apurtzen da. IÑAKI euren ondora salto egin du "bonba" erara. Irribarreak. LUZIANO ere uretara sartzen da. Eguzkia irteten ikusten duten bitartean bainu ederra hartzen dute.

### **135. ZUBIPEA. KANPOA. EGUNA.**

Familia kotxe barruan dago, irteteko prest.

MARIA LUISAk krema pota bat zabaltzen du.

MARIA LUISA

Azken detaile bat, moreno jartzeko krema!

IÑAKI eta PATRIZIO bere aurrean ipintzen dira. MARIA LUISAk krema ematen die. MARIA LUISA Luzianorengana inguratzen da.

---

<sup>95</sup> Azken muntaian, Maria Luisak gehiago esan eta azkenean beste eskatzen die, aktoreen moduan "kaka zaharra" esateko. Besteek errepikatu egiten dute.

<sup>96</sup> Besterik gabe, autoa ateratzen ikusten dugu.

LUZIANO

Ez, niri ez. Ni ez naiz sekula hondartzara jeisten.

MARIA LUISA

Egia da...

Besteak krema krema eman ahala moreno ipintzen dira.

MARIA LUISA

Bueno, gogoratu, norbaitekin topatzen bagera, oraintxe bertan iritsi gerala esango diogu. Ez badakizue zer esan, utzi niri, nik inprobisatuko dut.

Denak baiezkoa ematen dute.

MARIA LUISA<sup>97</sup>

Goazen. Aktoreek esaten degun bezela... Kaka zaharra!

LUZIANO, PATRIZIO eta IÑAKI elkar begiratzen dute.

HIRURAK

Kaka zaharra!

LUZIANO

Ez dakit hau dena nola bukatuko den, baina...

Denak Luzianori begira daude. Kezkatuta zer esango duen.

LUZIANO

...nere bizitzako oporrik onenak izan dira.

Pozik begiratzen diote elkarri.

Zubia jeneralean ikusten dugu. Kotxeak etengabe pasatzen ari dira gainetik. Azpian ETXEBESTEtarrak kotxean sartu eta kotxeak arrankatu egiten du.

### **136. KARRETERA. KANPOA. EGUNA.**

Mercedes-a errepidean sartu da. Kotxe ugari dator oporretatik bueltan. Irratiak itzulera operaziorako aholkuak ematen ditu.

Bat batean Mercedes-a huts egiten hasi eta errepide izkinan geratzen da.

PATRIZIO

Mekauen...

---

<sup>97</sup> Elkarrizketa sarrera hau eta hurrengo aurreragoko sekuentzia batean esaten dute (ikus 95. nota)

MARIA LUISA  
Zer degu oraingoan?

PATRIZIO  
Gasolina...

Kotxea errepidea izkinan gelditu egiten da.

IÑAKI  
Joder!

Bozina bat entzuten da, euren ondotik, Julian eta Rosa pasatzen dira, euren aurrean aparkatzen dute.

PATRIZIO  
Julian eta Rosa. kaka!

MARIA LUISA  
Horixe, kaka zaharra!

MARIA LUISA kotxetik irteten da. Beste hirurak ez dakite zer egin.

LUZIANO  
Patrizio, zabaldu kapota!

PATRIZIOk kapota zabaltzen du. LUZIANO eta PATRIZIO kotxetik irteten dira. LUZIANOk kapota zabaltzen du.

JULIAN eta ROSA inguratzen dira. Aurpegi nekatua dute. Bidai gogorra eginda.

JULIAN  
Aupa Etxebeste! Zer pasatu da?

PATRIZIO kotxeari ostikoak ematen hasten da.

PATRIZIO  
(*Exajeratua.*) Zer pasa den? Mekauen Mercedes eta Alemaniako ingeniero guztiak, horixe pasatzen da.

JULIAN  
Lasai Patrizio. Zerbait egitea egongo dek.

LUZIANOk kolpean kapota ixten du.

LUZIANO  
Ez zegok ezer egiterik. Gripatu egin dek.

LUZIANO kotxean sartzen da.

MARIA LUISA

(*Rosari.*) Bidaia guztia polikiago joateko esaten etorri naiz eta... Artikulo tres, kasoik ez!

PATRIZIO

Berriz ere horrekin! Kotxe hauek azkar ibiltzeko dira! (*Ostiko bat ematen dio.*) Kotxe puta honek hilabete guztia darama failatzen.

PATRIZIOk alde egiten du.

ROSA

Hau da hau! Hilabete osoa ikusi ezinik eta herriko sarreran topatu behar.

MARIA LUISA

Bai, kuriooa.

PATRIZIOk bero-bero jarraitzen du, nahiko aktore txarra da.

PATRIZIO

Mobila ere, bateriarik gabe... Utzidak hirea, Julian!

JULIAN

Neria ere... Lasai, Patrizio, zuek itxoin hemen, norbait bidaliko diat. Goazen Rosa!

ROSA eta JULIAN kotxean sartzen dira. MARIA LUISAk biak agurtu eta Patriziorengana zuzentzen da.

MARIA LUISA

Kontuz Patrizio, exajeratu gabe, igarri egiten zaizu eta.

PATRIZIO

Bai, kuriooa.<sup>98</sup>

### **137. KALE NAGUSIA. KANPOA. EGUNA.**

Kale nagusia jendez beteta dago. Herriko banda, hainbeste aldiz entzun dugun pieza, jotzen ari da, kale nagusitik aurrera doazen bitartean. kanpai hotsa ere entzuten da. Jendea kale bazterrean gustura dago, jai giro aparta.

### **138. GRUA. BARRUA. EGUNA.**

---

<sup>98</sup> Benetan esaten duena: "Zuk uste?"

EXENARRO ETA XIMON garabian sartuta daude. XIMON gidatzen eta EXENARRO, kopilotu lanetan, instrukzioak ematen.

EXENARRO  
Sartu hadi hortik.

XIMON  
Baina, nola sartuko naiz hortik. Ez al dek ikusten hortik ezin dala?

EXENARRO  
Sartu hadi hortik Ximon, bestela ez gaituk garaiz iritsiko.<sup>99</sup>

### **139. KALE NAGUSIA. KANPOA. EGUNA.**

KALE Nagusia jendez gainezka ikusten dugu. Txupinazorako denbora gutxi falta da. Herriko banda ikusten dugu Kale Nagusian gora. Bandaren atzean justu, Ximonen garabia sartzen da, garabiaren gainean Etxebestetarren Mercedes.<sup>100</sup>

### **140. GRUA. BARRUA. EGUNA.**

Garabi barruan, EXENARRO kristoren moskeoarekin dago. XIMON berriz nahiko nahastua.

XIMON  
(*Haserre.*) Zer esan diat? Bandan atzean atera gaituk. Mekauen Dios!

EXENARRO  
Lasai Ximon. Ederki egin dek.

### **141. KALE NAGUSIA. KANPOA. EGUNA.**

Garabi gainean, Mercedesean PATRIZIO, MARIA LUISA, IÑAKI eta LUZIANO txundituak daude. Ez dute ulertzen nola sartu diren Kale Nagusian. Jendea agurtzen dute oso lotsati.

Bat-batean AXUNen ahotsa entzuten dugu.

AXUN  
Maria Luisa, Maria Luisa...

---

<sup>99</sup> Ximonek uko egiten dio, Ezenarro haserretu eta bolanteari eusten dio.

<sup>100</sup> Ezenarrok leihotik "aupa Etxebeste" oihuka ikusten dugu.

MARIA LUISAk Axun ikusi eta PATRIZIORi begiratzen dio, kezkatuta. AXUNek MARIA LUISAren atentzioa deitu nahian agurtzen hasten da, baita bere ondoan dauden batzuk ere.

AXUN

Maria Luisa, telefonoz deika jardun gaitun... Lapurrak egon ditun zuen etxean bizitzen...

MARIA LUISAk PATRIZIORi begiratzen dio. PATRIZIOk irribarre egiten du, baita familiako denak ere. MARIA LUISAk pozik agurtzen du orain AXUN.

IÑAKI kotxetik irten eta garabitik martxan bajatzen da bonbardinoa eskuan duela. Jende tartean aurrera doa jendea saldatuz. Bandaraino iristean, bere tokian kolokatzen da, Maiteren ondoan. IÑAKIk keinu bat egiten dio Maiteri eta bonbardinoa jotzen hasten da. Nahiko txokatzen du hainbeste uniformeren tartean Iñakiren lorezko alkandorak.

Patrizioren lagun koadrila, taberna parean dago. PATRIZIO agurtzen hasten dira.

LAGUNAK

Patri, Patri, Patri...

PATRIZIO harro sentitzen da.

PATRIZIO

Jata, Mercedes a erre diat txupinazora iristeko.

LAGUNAK

Aupa Etxebeste!

Familiak, erregeak bailiran, mundu guztia agertzen dute. Baita herrikoek familia ere.

EXENARRO eta XIMON ere jendea agertzen ikusten ditugu. "Aupa Etxebeste" oihuak entzuten ditugu.

"Konpartsak" musikaren martxa jarraitzen du Kale Nagusitik. Plazaraino iristen dira.

Pertsona batek itxafero bat pizten du. Zeruan itxaferoak eztanda egiten du.

#### 142. TABERNA. BARRUA. EGUNA.<sup>101</sup>

Tabernan Patrizioren lagunak ardoxka bat hartzen daude. PATRIZIO tabernara sartzen da. EXENARRO eta XIMON berarekin datoz.

EXENARRO

Pentsatuta baino hobeto irten dek. Alkate haiz! Seguru!

---

<sup>101</sup> Sekuentzia honen ordeez, ikusten ditugu laurak, Patrizio, Maria Luisa, Luziano eta Iñaki, 132. sekuentzian bezala, tailerreko antzoki moduko agertokira atera, elkarri eskutik heldu, Maria Luisak "bat eta hiru" esan eta denak makurtzen. Berriro errepikatzen dute mugimendua eta azkenik badoaz bi aldeetara, beltzera urtu baino lehen.



PATRIZIOk mostradore gainean dauden pintxo bat ahoratu eta mastekatu gabe barrura sartzen du.

LUIS

Aupa Etxebeste! Zer moduz oporrak?

PATRIZIO

Oporrak? Lehenengo kriston karabanak, maletak zabaldu orduko andrea muturrekin... Semea, berriz, bere aldetik jo nahi zuela... Luziano, bueno Luziano betiko moduan... Konturatu orduko berriz ere maletak, karabanak eta iritsi baino lehen kotxea izorratu. Etxean berriz lapurrak... Mekauen Dios! Datorren urtean etxean pasatuko dizkiat oporrak! A tomar por kulo!

Denak barrezka hasten dira. Gustura.

PATRIZIO

Hi Julian, pagatu ezak erronda bat.

PATRIZIOk beste pintxo bat hartzen du.

**THE END**